

Herririk Herri | 7

Alderdien Legeagaz lotutako mozioa betetzea eskatu diote Berrizko alkateari



Berbaz | 8

Jon Bastante: "Zeozero aldatu gura bada, lehenengo norbera aldatu behar da"

Kultura | 13

Berri Txarrak disko berriagaz dator Plateruenera ekainaren 1ean



DURANGALDEA | 3

Durangaldea, ikasle ekintzaileen harrobia

Durangoko eta Elorrioko ikasle talde bik Aldundiaren ekintzaile saria jaso dute

Katering enpresa bat eta zeinu hizkuntzagaz lotutako proiektu bat proposatu dituzte

ELORRIO | 2

Banku etikoari buruzko berbaldia Aste Berdea hasteko

Banku etikoa, landare inbaditzaileak, petrolioaren krisia, energia berriztagarriak eta Elorrioko baso jabetza izango dituzte berbegai Aste Berdearen barruan.

Durango | 2

Askatasun Etorbideko etxe bi markatu izanak kezka sortu du

Mallabia | 6

Udala eta Euskaltzaindia Toponimia ikertzen ari dira

Durangaldea | 4

Industriaren arloko enpresek produktu propio gutxi dituzte

Atxondo | 6

Inbertsioak jaitsi dituzte udalaren egoera "delikatua" dela-eta



46 etxebizitza libre:

2 logela - 76,75 m²
3 logela - 92,10/97,40 m²
4 logela - 102,66 m²

PROMOZIO BERRIA MATIENAN



20 etxebizitza tasatu:

2 logela - 58,45 m²
3 logela - 72,80 m²

Garajeak eta trastelekuak

ELORRIO

Aste Berdea: hausnarketatik ekintzetara pasatzeko unea

Besteak beste, olio batzeko sistema berria ipiniko du martxan udalak

Pentsatzea eta ekitea. Aste Berdeagaz, Elorrioko Udalak eta Elorrixa elkarteak herritarrak kontzientziatzea dute helburu, baina lanean hasteko sasoia ere badela zabaldu gura dute. Maiatzaren 28an hasiko dira jardunaldiak.

Joseba Mujika alkateordeak hausnarketaz egin du berba: "Oso garrantzitsua da ohartzea herritarron parte-hartze aktiboa ezinbestekoa dela, inguru osasuntsuaz gozatu gura badugu". Azaldu du Aste Berdea lan-ildo horren baitan kokatzen dutela. Adibidez, udalak olio batzeko edukiontzia

berriak ipiniko ditu. Etxeetara pote bana bidaliko dute, eta ekainaren 1etik aurrera bilketa bultzatzeko kanpaina ipiniko dute martxan.

Eider Gallastegi udal teknikariak aurkeztu du egitaraua. Elorriako Eduardo Sardonek aipatu du koordinazio lan handia dagoe la egitarau horren atzean. Bost berbaldi programatu dituzte. Gainera, ikasleentzako ekimenak ere badaude; adibidez, irteera prestatu dute Arriandiko araztegiara. Ekainaren 3an, auto elektrikoak erakutsiko dituzte plazan, eta ibilgai-luak probatzeko aukera edukiko du gura duenak. ■ M. Onaindia

BERBALDIAK

MAIATZAK 28 Banku etikoa. Triodos Bank. 19:30ean.

MAIATZAK 29 La amenaza de las plantas invasoras en el País Vasco. Mercedes Herrera. 19:30ean.

MAIATZAK 30 Efectos económicos del techo del petróleo y respuestas. Roberto Bermejo. 19:30ean.

EKAINAK 1 Bioeraikuntza. Etxean energia berriztagarriak nola erabili. Geolur, Ekoetxe eta Vaillant. 19:30ean.

EKAINAK 2 Elorrioko baso jabetzaren kudeaketa aukerak. Bizkaiko basogintza elkarteak. 11:00etan. (Guztiak Iturri kultur etxean)



Aste Berdeko ekintzak aurkezteko ekitaldia, udaletxeko aretoan.

Ferixa Nausikoetako kartel lehiaketa martxan dago

Aurkeztutako lan guztiak Iturri kultur etxean erakutsiko dituzte ekainaren 18tik 30era

Ekainaren 11ra arteko epea ipini dute aurtengo Ferixa Nausikoetako kartel lehiaketan lanak aurkezteko. Herritarrek botoa emateko aukera edukiko dute, eta iritzi horiek kontuan izanda, epaimahai tekniko batek hartuko du azkeneko erabakia. 500 euroko saria jasoko du irabazleak. Anboto asteakaria lehiaketaren babesle da.

Udalaren erregistroan aurkeztu beharko dute interesatuek euren lana. Luma paperean eta euskari digitalean eroatea eskatu dute antolatzaileek. Irudian, hurrengo esaldia agertu beharko

da: *Ferixa Nausikoak 2012-Elorri-abuztuak 31-irailak 9.* Lan guztiak Iturri kultur etxean erakutsiko dituzte ekainaren 18tik 30era. Irabazleaz gainera, gainerako kartelak ere jaietako esku-liburuan publikatuko dituzte.

Feria protagonista

Iraileko lehenengo domekako feriarenean bueltan ospatzen dira jaiak. Horregatik, feria izan da inspirazio-iturri sarritan aurreko urteetan. Iaz, Libe Mimentzak ortuariak erabili zituen kartel irabazlea ilustratzeko. ■ M. O.

Euskara biziberritzeko plana onartu dute udalean

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia aurrera atera da Elorrioren. EAJk eta Bilduk egin dute alde, eta PP abstenitu egin da. Fernando Azkarate Euskara zinegotziak esan du aurtengo plangintza barneratu dutela bakarrik. Plan estrategikoa garatuko dute 2013-2018 denbora tarterako. Bilduren ustez, hausnarketa sakona beharrezkoa da euskararen erabilerrari bultzada emateko.

PPko Carlos Garciak esan du euskara batua arautzen dela bakarrik. Bere ustez, Elorrioren bizkaiera erabiltzen da gehienbat, eta planagaz diskriminatu egiten dela dio. ■ M. O.

DURANGO

Oposizioaren babes barik eztabaidatuko dituzte aurrekontuak

Aralar eta PPren ostean, Bilduk eta PSE-EEK ere zuzenketak egin dizkiote EAJren proposamenari

Martitzeneko ohiko bilkuran eztabaidatuko dituzte udalaren 2012ko aurrekontuak. Itxura guztien arabera, gobernu taldeak proposatutako zirriborroak ez du oposizioaren babesik jasoko. Azken asteotan alderdi guztiek kritikatu dute EAJren proposamena.

Aralarrek eta PPK pasa den astean, orain Bilduk eta PSE-EEK eman dute euren zuzenketen berri. Bilduk osoko zuzenketa aurkeztu du, aurrekontuak parte-hartzaileak ez direlako izan, eta PSE-EEK sei milioi euroko balioa duten zuzenketak aurkeztu ditu.

Bilduren ustez, 2012ko proposamena aurreko urteetakoaren jarraipena da. Parte-hartzearen premia nabarmendu dute. 2012rako 3 milioiko inbertsioak

Bildu: "Diru gutxiago dagoen honetan, herritarrek erabaki behar dute zertan inbertitu"

aurreikusten direla eta krisialdian inbertsioetarako irizpideak aldatu behar direla uste du Bilduk: "Diru sarrera gutxiago dagoen honetan, herritarrak izan behar dira zertan inbertitu erabaki behar dutenak".

PSE-EE: "EAJk gurago du politika sozio-ekonomiko barik jarraitzea"

PSE-EEK EAJgaz akordioetara heltzeko pausoak ez dituela emango argitu du, "arinago izan ditugun akordioak ez dituztelako bete". Zirriborroan gabezia ugari ikusi ditu PSE-EEK: "EAJk gurago du politika sozio-ekonomiko barik jarraitzea". Zuzenketetan, Antso Estegizzen erreforma integral bat egitea proposatu dute sozialistek. Murueta Torren haurtzaindegia egokitzea eta Garai jauregian kultur etxea jartzea ere bai. ■ A. U.

Askatasun etorbideko etxebizitza bi markatu izanak alarma piztu du

Portal horretako administratzaileek gainerako bizilagunak ohartarazteko bandoa jarri dute

Borobil bat eta 'X' bat. Horiek izan dira Askatasun etorbideko etxebizitza bi markatzeko erabili dituzten ikurrak. Portal horretako administratzaileek oharra jarri dute beste bizilagunak jakinaren gainean jartzeko. Berehala zabaldu da albistea herri osoan. Sare sozialetan ere ohar horren argazkia bolo-bolo dabil. "Seinale horiek pisu horretara lapurretan egitera sar daitekeela adierazten dute",

Adiministratzailea: "Seinale horiek lapurretan egitera sar daitekeela adierazten dute"

Ertzaintza: "Lapurretan egin gura duena, beste barik lapurretan sartzen da"

dio administratzaileak. Gaineratu duenez, solairu bereko bi pisuren atarian agertu dira ikurrak, felpudo gainean.

Ertzaintzak ez du sinestu Seinale horien inguruan galdetuta, Ertzaintzak ez die sinesgarritasunik eman: "Lapurretan egin gura duena, beste barik lapurretan sartzen da; ez du markaririk egiten". Durangoko Ertzain Etxeko arduradunen berbetan, jendearen ahotan dabilen gaia izan arren, ez dute horrelako kasuen berririk. "Jendeak aldiro kontatzen duen gaia da, baina guk ez dugu salaketarik jaso".

Durangoko udaltzainen buruak ere kasu bandoaren bidez ezagutu dutela azaldu du. "Bandoa ikusterakoan zer gertatu den jakin gura izan dugu. Hala ere, guk ez dugu antzeriko kasuen inguruko informaziorik". ■ J. G.

DURANGALDEA

Durangoko eta Elorrioko ikasleen ideiak saritu dituzte

Durangoko ikasleek catering enpresa bat diseinatu dute, eta Elorriokoek telebista nahiz irratiko soinuak zeinuen hizkuntzara itzultzeko aparatu bat

Bizkaiko Foru Aldundiak ikasle ekintzaileei emandako sariak Durangaldera etorri dira. Negozio plan onena Durangoko Fray Juan de Zumarraga institutuko Iratxe Agirrek, Aner Arruabarrenak, Jon Monterok eta Mikel Fernandezek egin dute. Asmakizun onena, Elorrioko Institutuko Maider Lopezek, Ibone Ajuriak, Itsasne Blancok, Andoni Arroioek eta Gorka Blancok sortu dute. *Egin eta Ekin* sustapen-programan garatu dituzte ideiak.

Iratxe Agirre: "Kateringean bertoko produktuak bakarrik erabiltzeak bereizten gaitu"

Maider Lopez: "Lagun baten gurasoak gorra dira, eta horregatik okurritu zitzaigun"

Durangokoek, Kaiser Katering izeneko enpresa diseinatu dute. Proiektu ahalik eta errealean egiten saiatu dira. Iratxe Agirrek ekologia zaindu eta hemengo ekonomia bultzatzen dutela dio: "Kateringean bertoko produktuak bakarrik erabiltzeak bereizten gaitu". Aner Arruabarrenari etorkizunerako balio izan dio lanak: "Oso ondo pasatu dugu, eta konturatu naiz Lidertza Ekintzailea ikasketak egin gura ditudala". Hemendik aurrera pentsatzeko forma aldatu behar dela uste du Arruabarrenak: "Langabezian bazaude eta uste baduzu ona zare-



Aldundiaren saria jaso duten bederatzik ikasleak.

la zerbaitetan, hasi zuretzako lanean, inoren menpe egon barik". Elorriarrek, arazoak dauzkaten pertsonak laguntzea zuten buruan. Telebista eta irratitik emititzen diren berbak zeinu hizkuntzara itzultzeko aparatua asmatu dute. Maider Lopezek azaldu du arrazoa:

"Gure lagun baten gurasoak gorra dira, eta horregatik okurritu zitzaigun". Soinuak irudika sailkatzen dira. Ibone Ajuriak dio oso gustura joan direla Teknologiako klase-ra. Itsasne Blancok ere esperientzia polita eta dibertigarria izan dela adierazi du. ■ M. Onaindia

Internetek Iurretako eta Peruko hainbat ikasle elkartu ditu

Bideokonferentzia bidez, jasangarritasunaz berba egin zuten; herri gehiagotakoek ere egingo dute

Amankomuzgoak sustatzen duen Eskola Agenda 21 programaren barruan, jasangarritasunaren inguruan berba egin zuten Iurretako eta Peruko hainbat ikasle martitzenean. Hain zuzen, Juan Orobiogitia institutuko eta Peruko Ciudad Eten distrituan dagoen ikastetxe bateko ikasleak elkartu zituen orduerdiko bideokonferentziak.

Jasangarritasunaren inguruan Durangaldean zer egiten den azaldu zuten Iurretako gazteek, eta arlo horretan Peruko egoera zein den ere jakin gura izan zuten. Amaitzeko, agur modura, kantu bana eskaini zieten elkarri bai hemengo eta bai Peruko gazteek. Atzo Zaldibarko ikastetxean errepikatu zuten bideokonferentzia eta datozen asteetan Berriz, Otxandio, Durango, Abadiño eta

Elorrioko ikastetxeetan ere egingo dute.

Hamasei ikastetxegaz

Bideokonferentziaren ostean Eskolako Agenda 21aren gaineko xehetasunak eman zituzten. Isme-ne Mandaluniz programako teknikariak azaldu zuenez, "orain sei urte zazpi ikastetxegaz abiatu zen ekimena eta gaur egun hamasei ikastetxek parte hartzen dute". Datuak ikasle kopurura ekarrita, 1.270 ikaslegaz abiatu zuten ekimena eta gaur egun 7.294 gaztek parte hartzen dute.

Eskola Agenda 21 programak gazteei ahotsa eman nahi die jasangarritasunaren inguruan dituzten kezka jakiteko eta ikastetxean nahiz beraien inguruan egin diatezkeen hobekuntza proposamenak jasotzeko. ■ J. D.



Gazteak Juan Orobiogitia institutuko bideokonferentzian.

AURREMATRIKULAZIO DATAK

- **DBH:**
 - Gela egonkorra
 - Laguntza gelak
 - Kurrikulum anitzak eratzeko programak
- **BATXILERGOAK:**
 - Zientziak eta Teknologia (Aukera: eleanitza)
 - Giza eta Gizarte Zientziak (Aukera: eleanitza)
 - Arteak (Arte plastikoak eta diseinua)
- **ZEREGIN IKASKUNTZARAKO GELA (ZIG)**
- **HEZIKETA ZIKLOAK**
 - Erdi mailako heziketa zikloa:
 - Landa Ingurune Gorpuz eta Kirol Ekintzen Gidaritza (D eredu)
 - Goi mailako heziketa zikloa:
 - Gorpuz eta Kirol Ekintzen Sustapena (D eredu)

Heziketa zikloak
ekainaren 28tik
uztailaren 8ra

Institutuan, jakina!!

IES Fray Juan de Zumarraga - Durango BHI

institutua
Durango

DURANGALDEA

Industriaren arloko enpresek produktu propio gutxi dituzte

Durungaldeko Enpresen Elkarteak, Durungaldeko Amankomunazgoak eta Azterlan zentroak eskualdeko industriaren egoera aztertzeke eta etorkizunera begirako garapen eredurik egokiena proposatzeko hausnarketa eta ikerketa prozesua abiatu zuten 2010ean. Bide horretan, eskualdeko industriaren erradiografia jasotzen duen mapa aurkeztu dute.

Mapa horrek hainbat ahulgu-ne azaleratu ditu. Esaterako, enpresa askok produktuen ekoizpena mugatzen dute euren jarduna. Hau da, produktuen diseinua eta diseinu horren garapena ez da ildo estrategiko bat eskualdeko enpresa gehienetan: "Durungaldean lehiakortasun handia dago manufaktura-ahalmenari dagokionez. Baina produktuen diseinua eta diseinu horren garapena ez dugu menderatzen; hori ahuldade bat da. Besteek diseinatu dutena ekoizteak oso ibilbide laburra du", adierazi du Azterlari ordezkarri Anton Gorriñok. Balio erantsia duten produktuen garrantzia azpimarratu du.

Kontraesanak ere azaleratu ditu ikerketak. Ikertutako enpresen %60k dio gaur egun ekoizten dituzten produktu berdinekin merkatu berrietara heldu nahi dutela etorkizunean. Era berean, %68k planteatu ere ez du egiten produktu berriak garatzea merkatu berrietara heltzeko. ■ J. D.

GARAI

Langabetuen portzentaia EAEko txikiena izan da apirilean

Lanbidek emandako datuen arabera, Garain dago langabetuen portzentaia txikiena. Euskal Autonomia Erkidegoko apirileko balantzea publikatu du Lanbidek. Garain, 210 biztanle aktibotik, lau bakarrik daudelarik. Ehunekoetara eroanda, %1,9koa da indizea. 25-45 adin tartean egi daude lan bakoak, guztiak zerbitzuen alorrean ibilitakoak. Langabetu-tasa %16,1ekoa da Bizkaian, eta EAEn %14,9koa.

Durungaldeari erreparatuta, Garairen ostean Mañaria kokatzen da, %8,8ko indizeagaz. Lanerako gai diren 250etik, 22 daude lan barik. Eskualdeko tasa handiena Iurretan dagoela diote datuek: %15,3. Lan barik 290 biztanle daude, 1.895 aktiboren artean. Iurretaren ostean, Zaldibarek dauka tasa altuena: %13,4. Lana gura duten 1.507tik 202 daude bila. Durungaldean, 4.959 pertsonak ez dute lanik topatzen, azken datuen arabera. ■ M. O.

Garaiko datuak ehunekoetara eroanda, %1,9koa da indizea

Durungaldean, 4.959 pertsonak ez dute lanik topatzen, datuen arabera

OTXANDIO

Bigarren orientazio-proba egingo dute eguaztenean

Bizkaiko eta Arabako 13 ikastetxe eta 509 ikasle ari dira parte hartzen

Otxandioko Herri Ikastetxeak laugarren aldiz antolatuko ditu Orientazio Probak. Saioak jardunaldi bitan banatu dituzte. Lehenengo, martitzenean burutu zuten, eta hurrengo datorren eguazten goizean izango da. Jardunaldi biak kontuan hartuta, guztira, Araba eta Bizkaiko hamahiru ikastetxe eta 509 ikasle (DBHko 5. eta 6. mailakoek) parte hartuko dute.

Martitzenean Igorre, Artea eta Areatzako ikastetxe banak eta

Gasteizko hiruk parte hartu zuten. Lau zirkuitu zeuden aukeran. Ikasleek, biko taldeetan, zirkuitu horietako bati aurre egin zioten iparrorratz baten eta mapa baten laguntzagaz.

Helburua, ikastetxetik abiatu eta hainbat tokitan ipinitako balizak bilatzea eta ibilbidea ahalik eta arinen egitea zen, orientaziorako dituzten gaitasunak erabilita. Eguraldi txarrari aurre eginez, "gazte gehienek lortu zuten ibilbidea amaitzea", Iñigo Ramos

irakasle eta ekimeneko antolatzailaren arabera. Parte hartzaile guztien artean Areatza eta Igorreko bikoteek lortu zuten puntuaziorik altuena.

Eguaztenean zazpi ikastetxe Eguaztenean, 09:30ean, Otxandio, Lemoa, Zeanuri, Aramaio, Dima, Zornotza eta Legutioko ikasleak batuko dira. Prozedura berdina izango da: gazteek bina-ka irtengo dute minutu bateko maiztasunagaz. ■ J. Derteano



Euriari aurre eginda 250 gaztetxo batu zituen lehenengo jardunaldiak.

ABADIÑO

Iraileko egongo da Traña-Matienako haur eskola berria prest

Proiektua gauzatuko duen enpresa hautatzeko lehiaketa publikoa deitu du Abadiñoako Udalak

Traña-Matienako haur eskolaren proiektua burutuko duen enpresa hautatzeko lehiaketa zabaldu du Abadiñoako Udalak. Hautatzen duten enpresak, 589.162 euroko aurrekontua edukiko du proiektua gauzatzeko.

Udan gura dituzte egin haur eskola berria egokitzeko obrak. Udalaren aurreikuspenen arabera, irailaren 15erako amaituko

Enpresak 589.162 euroko aurrekontua edukiko du proiektua gauzatzeko

Traña-Matienako haur eskola berria oraingoa dagoen leku berean atonduko dute eraikin

dituzte beharrak: "Umeek ikasturte berria abiatu ahal izateko arazorik egon ez dadin".

Traña-Matienako haur eskola berria oraingoa dagoen leku berean atonduko dute, eta bi urte arteko 60 ume hartzeko egokitu-ko dute eraikina.

Inbertsio nagusietakoa

Lau ikasgela, erabilera aintzeko gela bat, eta sehaska-gela bat atonduko dituzte eraikinaren beheko solairuan. Gainera, gurasoentzako harrera-gune bat ere atonduko dute beheko solairu horretan: umeen karrotxoak uzteko lekua ipiniko dute bertan.

Udalaren 2012rako aurrekontuko inbertsio nagusietako bat da Traña-Matienako haur eskola berriarena. Aurrekontu horretatik gauzatuko duten lehenengo inbertsioa da. ■ I. E.

Langile bi zauritu dira Estampaciones enpresan

Astelehenean, goizeko 10:00etan gertatu zen istripua. Abadiñoako Lebario auzoko Estampaciones Bizkaia enpresan jazo zen ezbeharra. Langile bi elektrizitate konponketetan zebiltzala, eztanda bat izan zen.


Langile bi elektrizitate konponketetan zebiltzala, eztanda bat izan zen

Enpresako arduradunek jakitera eman zuten, azpikontratutako enpresa batekoak dira zauritutako langile biak. Zauri arinak izan zituen langileetako batek, eta ospitalera eroan zuten bigarren langilea: erredura larriak dauzka. ■ I. E.

Zauri arinak izan zituen batek, eta ospitalera eroan zuten bigarrena

DURANGALDEKO LANBIDE IKASTETXEA 2012-2013 Ikasturtea

<p>ZUREZKO AROTZERIAKO FABRIKAZIOKO, MUNTAIKO ETA AKABERETAKO LANGILEA</p>	<p>PINTURAKO, PAPERETZADURAKO ETA ERAIKUNTZAKO BESTE AKABERA BATZUETAKO LANGILEA</p>
<p>SUKALDEKO ETA ZERBITZUKO LANGILEA</p>	<p>ITURGINTZAKO LANGILEA</p>



INSTITUTO ESPECIFICO
DE FORMACION PROFESIONAL
SUPERIOR

ZORNOTZA

GOI-MAILAKO LANBIDE
HEZIKETAKO BERARIAZKO
INSTITUTUA

*Lanerako
Langile
Trebatuak*

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak.
- Web Aplikazioen Garapena.
- Mekatronika Industriala.

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak.
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak.
- Mantentze-Lan Elektromekanikoa.
- Soldadura eta Galdaragintza.
- Mikroinformatika Sistemak eta Sareak.

ESKAINITZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak.
- Soldadura eta Galdaragintza.

SARBIDE-PROBARAKO PRESTAKUNTZA

- Zati komuna.

ZIKLO GUZTIAK EUSKERAZ ETA GAZTELERAZ

DATAK

Aurrematrikula: maiatzaren **28**tik ekainaren **8**ra

Matrikula: uztailaren **5**etik **11**ra

Tel.: 94 673 02 51

e-mail: info@fpzornotza.com

www.fpzornotza.com



DIURRETA

"Egunak pasa ahala gero eta itxaropen gutxiago dugu"

Miloudi Abbasi iurretarrari Diru-sarreraren Berme Errenta kendu diote, eta etxe barik gera daiteke

Urrian utzi zion Miloudi Abbasi Diru-sarreraren Berme Errenta (DBE) jasotzeari. Aldunditik Lanbiderako eskumen aldaketak sortutako zurrumbiloi murgildu, eta egoera "zaila" sortu zaio: langabezia dago eta etxebizitza utzi beharrean egon daiteke, emaztearekin eta adin txikiko hiru seme-alabekin. Urtariletik dago 600 euroko erren-

ta ordaindu ezinik: "Diru hori behar du jabeak, eta neurri legalak hartuko ditu. Egunak pasa ahala gero eta itxaropen gutxiago dugu".

"Batak bestearengana bildatzen gaitu. Logikarik ez du egoera honek"

2003tik bizi da Iurretan Abbasi, eta abisurik gabe kendu zioten DBE. Gizarte teknikariagaz hori berreskuratzeko tramitazioa hasi zuen, baina, tarte horretan, Lanbidek hartu zuen Aldundiarena zen eskumena, abenduan. "Errekurtsoa aurkeztu dugu Aldundian eta Lanbiden, erantzunik gabe. Batak bestera bildatzen gaitu. Logikarik ez du egoera honek".

1.847 familia, DBE barik Aldundiaren eta Lanbideren jardueraren eraginez, 1.847 familiek utzi diote DBE jasotzeari, gizarte eragileek Bilbon salatu dutenez. Abbasi da bat: "Taberna bitan aritu naiz lanean, baina, gastuei ezin eutsita, utzi egin nituen. DBE eskatu nuen gero. Orain, zurrumbiloi honetan nago. Lan bila nabil, baina, ez dut ezer lortu". ■ A. B.



2003tik bizi da Iurretan Miloudi Abbasi, bere emazte eta hiru seme-alabekin.

MALLABIA

Udala eta Euskaltzaindia toponimia ikertzen ari dira

Pello Mugartza eta Justo Azagirre mallabiarrek Gereaa auzoan hasi dute leku izenei buruzko lana

Mallabiko Udala eta Euskaltzaindiak herriko toponimia batzeko hitzarmena sinatu zuten joan zen barikuan. Mila Mondragon alkatetik eta Euskaltzaindiako idazkari Xabier Kintanak sinatu zuten akordioa udaletxean.

Duela hile bi ekin zioten Pello Mugartza eta Justo Azagirre malla-

Ikerketak urte eta erdi inguru iraun dezake, ikertzaileen berbetan

biarrek auzorik auzo egin beharreko ikerketa toponimikoa. "Base-erri baserri gabiltza planoarengainean lanean", azaldu du Mugartzak. Herriarren erantzuna oso ona izaten ari da, gaineratu duenez: "Galdetzen diegun mallabiar guztiak dakitena azaltzeko prest daude". Gereaa auzoan 20 lagun inguru elkarrizketatu dituzte dagoeneko, eta 500 leku izen inguru jaso dituzte. Ikerketak urte eta erdi inguru iraun dezake, ikertzaileen berbetan. Datuak jaso eta mapa egingo dute. ■ J. G.

Herri baratzen inguruko batzarra deitu du udalak

Mallabiarrek herri baratzen premiarik duten jakin gura du udalak. Herriarrek zuzenean zerbitzu horren inguruko batzarra deitu du udalak maiatzaren 29rako, 19:00etan kultur etxean. Herri baratza auzolanean egiteko asmoa dutela azaldu du Xabat Areitourtena zinegotziak: "Ez daukagu diru askorik proiektua

martxan jartzeko, beraz, auzolanean egitea posible dela deritzogu". Gazte zein zahar, edozein adinetako herritarrei ortuan nekazaritza ekologikoan lan egiteko aukera eskaintzea da udalaren helburua. 15-25 lagunentzako zerbitzua eskaini gura dute Mallazpi kalearen gaineko landan. ■ J. G.

"Ez daukagu diru askorik proiektua martxan jartzeko; auzolanean egitea posible da"

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Ate Irekien Jardunaldiak

Maiatzak 26, 11:00

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
 943 71 21 91



BERRIZ

41 lagunen datu sekretuak argitu ditzaten eskatu dute

Alderdien Legea dela-eta onartutako mozioa betetzeko exijitu diote Isoirdi



Ezker Abertzaleko ordezkariak, 41 herritarren eskaerak aurkezten.

Ezker Abertzalearen hautagai izandakoek eta Bilduren ordezkariak eskaera zehatza egin diote Orlan Isoird alkateari. Iazko maiatzeko osoko bilkuran aho batez onartutako mozioa bete dezala exijitu diote. Hau zioen mozioak: "Eskubideak urrututa dituzten susmoa duten herritarrei, hala eskatuz gero, euren egoeraren berri jakiteko tramiteak burutzea".

"Hauteskundeetan libre parte hartzeko eskubidea mugatua daukadan zalantza daukat"

41 lagunek egin dute euren inguruko datuak argitzeko eskaera. Ezker Abertzaleko kideek ofizialki aurkeztu dituzte. Kezka azaldu du eskatzaile bakoitzak: "Hauteskundeetan libre parte hartzeko eskubidea mugatua ote daukadan zalantza daukat, ezagutzen ez ditudan datu sekretu batzuk nire

eskubide horren kontra egon daitezkeelako". Hiru ekintza eskatu dizkiote idatziz Isoird jeltzaleari: izaera ideologikoa duten euren buruzko datuak jakinaraztea, iazko mozioan hartutako konpromisoa praktikan ipintzea eta Espainiako gobernuari zuzenean Eusko Jaur-laritzari azalpenak exijitzea.

Iazko mozioaren zergatia

Alderdien Legearen ondorioz, Berrizen 80 lagun hauteskundeetara aurkeztu ezinik zeudela ondorioztatu zuten Ezker Abertzaleko zinegotziak. Aurretik Ezker Abertzaleko apoderatu edo hautagai izandakoek ezin dutela hauteskundeetara aurkeztu kritikatu zuten. Baina, sasoi hartan baldintza berriak agertu zirela ohartarazi zuten mozioaren aurkezleek. Adibideak bota zituzten: polizia kontrol batean identifikatzea edota preso politiko bat bisitatzea. Baldintza berrieekin, ez zekiten seguru zenbat pertsona zeuden egoera horretan. ■ M. Onaindia

ATXONDO

Inbertsio minimoak egingo dituzte egoera "delikatua" delako

Gobernu Taldearen aldeko botoekin eta EAJren abstentzioagaz onartu dituzte aurrekontuak

Asteleheneko udalbatzarrean 2012ko aurrekontuak onartu zituzten Gobernu Taldearen botoekin. EAJ abstenitu egin zen, "argitasun falta" argudiatuta. Ia 1,7 milioi eurokoa da zenbateko osoa.

Juanjo Nora alkateordeak onartu duenez, udalaren egoera "delikatua" da, eta, ondorioz, "gauregun-egoera ekonomiko orokorrera eta Atxondoko errealitate ekonomikora egokitzen diren aurrekontuak osatu ditugu". Aurtengo ahalegin nagusiak azpiegituren eta zerbitzuen mantenura bideratuko dituzte. Ondorioz, inbertsioak "minimoak" izango dira: 171.000 euro. Horietatik 129.000 euro iazko kontabilitate akats bat parekatzeko erabiliko dituzte; 40.000 Hiri Antolamenduko Plan Orokorren berri-

kusketarako eta 2.000 euro liburu-tegirako liburuak erosteko.

Udalak zorrak ditu eta zordunak ere bai. Durangaldeko Amankomunazgoari "hainbat" kuota zor dizkietela onartu du Norak: "Iazko urrira arteko faktura guztiak ordaindu ditugu. Lehen tasun moduan enpresa txikiak eta hornitzaileak hartu ditugu. Apurka Amankomunazgoari ordaintzen ere ari gara".

Zordunen kasuan, 900.000 jaso behar ditu udalak hainbat bidetik. Esaterako, Barraskiko etxebizitzak egiten ari den enpresak 305.000 euro zor dizkie. Enpresak esan zenez Bancajak emango die abala: "Asteon bertan Bankiako ordezkariekin [Bancaja hor barruan dago] berba egin dut eta abala emango dietela baieztatu didate". ■ J. D.



Cemosako almazena sutan, joan zen zapatu arratsaldean. A. U.

Ekoizpenaren %20 erre du suteak Cemosan enpresan

Asteburuetan errekeratu gura dute ekoizpena

Joan zen zapatuan Cemosan enpresak dituen bost almazenetako bat erre zuen sute batek. Gutxi gora-behera produkzio osoaren %20 erre zela kalkulatu dute enpresako ordezkariak. Galdutako ekoizpena datozen asteburuetan produzitu gura dute: "Zazpi makina

ditugu eta normalean 4-5 egoten dira martxan asteburuetan. Datozenetan denak egongo dira".

Bestalde, oraindik ez dute aurkitu sua zerk eragin zuen. Cemosak 190 langile ditu eta elikagaien edukiontzia egiten ditu paper birziklatuagaz. ■ J. D.

ZALDIBAR

Garbiketa zerbitzua eta gaztelekua esleitu dituzte

Hiru urterako, baina beste urte batez luzatzeko aukeragaz adjudikatu dio udalak Arrasateko Txatxilipurdi aisialdi taldeari herriko Gaztelekua kudeatzeko eskumena. Lehiaketa publiko bidez, erabaki dute aurrerantzean ere Txatxilipurdi aisialdi taldeak jarraitzea Zaldibarko gaztelekua kudeatzen, azken urteetan egin duen bezala.

Lehiaketa bidez, erabaki dute Txatxilipurdik jarraitzea gaztelekua kudeatzen

Herriko eraikin publikoak garbituko dituen enpresa berria ere aukeratu du Zaldibarko Udalak: hainbat enpresa aurkeztu dira lehiaketa publikora, eta "eskaintza ekonomikorik onena egin dutelako", Eulen garbiketa enpresa aukeratu dute. ■ I. E.



LOTU ZURE ETORKIZUNA!



AURREMATRIKULAZIOA

Ekainaren 28tik

uztailaren 8ra

Tel.: 94 466 88 00

www.iurreta-institutua.net

idazkaritza@iurreta-institutua.net

Durungaldean labor

Pertsona bat hil da auto istripuz Arriandin

Autoa gidatzen zihoala kamioi baten kontra aurrez aurre jo eta gero, pertsona bat hil zen martitzenean Arriandin, Smurfit paper-fabrikaren parean. Autoan harrapatuta geratu zen gidari gaztea eta Iurretako suhiltzaileek bertatik atera zutenerako hilda zegoen. Trafikoa A8tik bideratu behar izan zuten ertzainek istripuaren ostean.

Zelaia gogoan komertzioen inguruko sari banaketan

Eguaztenean merkataritzaren eta turismoaren inguruko sariketa egin zuen Jaurlaritzak Getarian. Ekitaldian Xabier Zelaia gogoratu zuten, duela hil batzuk hildako merkataria durangarra. Zelaia 2006 eta 2007 urteetan Bizkaia Martxan sortu zuen, sektoreko Durangoko, Basauriko eta Gernikako profesionalak batuta. Bizkaidendak-eko presidentea ere izan zen hiru urtez.



Desanexioaren 23. urteurrena

1927tik 1990era arte Durangora anexionatuta egon zen Iurreta. Eguazten honetan txapliguak botata ospatu dute herriaren desanexioa iurretarek. 1989ko maiatzaren 23an, Durangoko Udalak Iurretako batzordearen akordioari aho batez eman zion baietza udalbatzarrean.

MAÑARIA

Bitora eta Lucia Inzunza ahizpak omendu dituzte

Faxismoaren aurka borrokatu zutenak gogora ekarri zituzten joan zen zapatuan udaletxean

Bitora eta Lucia Inzunzak adi-adi entzun zuten joan zen zapatuan Jon Irazabal Gerediaga elkarteko kideak udaletxean emandako berbaldia. Gerediaga elkarteko kideak Gerrate Zibilak Mañarian izan zuen eragina azaldu zuten, udalak faxismoaren aurka borrokatu zutenak

omentzeko antolatutako ekitaldian. Luciak (87 urte) eta Bitorak (84 urte) bertatik bertara bizi izan zuten Irazabalek azalduakoa. Mañarian botatako bonbak, frontearen kokapena, herrian bizi zen giroa, Saibiko bataila eta beste hainbat gertaera gogora ekarri zituen Irazabalek. Endika Jaio alka-



teak Inzunza ahizpei lore sorta eskaini zien, eta ostean udalbatza osoagaz argazkia atera zuten. Aurretik, plaka jarri zuten udale-

Inzunza ahizpei lore sorta eskaini zieten eta udalbatzagaz argazkia atera zuten

txearen sarreran. "Gazte zein nagusi, udal aretoa jendez bete zen gure historian ezagutzeko", alkatearen berbetan. ■ J. Guenetxea

Auto zaharren erakusketa egingo dute lehenengoz

Udalaren babesagaz, lau laguneko taldea dabil ekimena eratzen; herrian giroa sortu gura dute

Auto klasikoen topaketa eta erakustaldia eratu dituzte, biharko, Mañarian. Goizeko 11:30ean elkartuko dira parte-hartzaileak plazan, eta Otxandiora joan-etorria burutuko dute. Buelatzean, autoak plazan utziko dituzte, jendeak ikus-

Parte-hartzaileak 11:30ean elkartuko dira, eta Otxandiora joan-etorria burutuko dute

teko aukera eduki dezan. Bazkaria izango dute 15:00etan, eta arratsalderako umeentzako jolasak ere prestatuko dituzte.

Kopuru finkorik ez
Udalaren babesagaz, lau laguneko taldea dabil ekimena antolatzen. Iban Uriartek azaldu du auto klasikoaren zaleak direla. Zaletasunaz gainera, herrian giroa sortu gura dute. Ez dakite seguru zenbat parte-hartzaile agertuko diren. Lehen edizioa denez, emaitza ikusi eta hurrengo urteetan eratzten jarraitu edo ez aztertuko dute. ■ M. O.

IZURTZA

Bide ondoko aparkaleku batzuk mantendu gura ditu udalak

Herrigunean, plazaren eta errepidearen artean, autoak aparkatzeko erabiltzen den zonalde bat dago. Hamar bat autorentzako tokia du. Autobus geltoki berria hantxe egingo dutenez, hiru-lau

autorentzako tokia bakarrik geratuko da. Aldundiak ez du nahi gune hori aparkatzeko erabiltzerik, autoak atzez irten behar dutenez arriskutsua delako. Udalak dio ulertzen duela Aldundiaren jarrera, baina leku batzuk mantendu gura dituzte, mugatuta bada ere, Luis Ballarin alkateak esan duenez: "Udalerako eta tabernarako kudeaketak egiten dituztenentzako bi-hiru aparkaleku izatea nahi dugu eta negoziatzen gabilta Aldundiagaz". ■ J. D.

AUKERA ZABALENA

AURREMATRIKULA: MAIATZAREN 28TIK EKAINAREN 8RA
MATRIKULA: UZTAILAREN 5ETIK 11RA

<p>HEZIKETA ZIKLOAK INFORMATIKA Mikroinformatika sistemak eta sareak. Erdi maila. Plataforma anitzeko sistemen administrazioa. Goi maila. Sareko informatika sistema administrazioa. Goi maila.</p> <p>MARKETING ETA MERKATARITZA Merkataritza Jarduerak. Erdi maila. Nazioarteko Merkataritza. Goi maila.</p> <p>PROIEKTUAK ETA JARDUERAK Ikasle lan poltsa Nazioarteko ikasle-trukea Enpresen formazio beharren azterketa Enpresa simulatuen feriak UNI Encounter (informatika jardunaldiak)</p>	<p>ADMINISTRAZIOA Administrazio kudeaketa. Erdi maila. Administrazio eta finantzak. Goi maila.</p> <p>HEZIKETA FISIKOAK Aktibitate fisiko eta kirol animazioa. Goi maila.</p> <p>HEZIKETA ESKAINTZA: A ETA D EREDUAK</p>	<p>BATXILERGOAK Zientifiko-teknologikoa Giza zientzia eta humanistikoak Aukerako irakasgaien eskaintza zabala</p> <p>ENPLEGURAKO FORMAKUNTZA ESKAITZA PARTZIALA Sarbidetarako prestakuntza: Atal orokorra A, B eta C atalak. Administrazio eta Finantzak. Goi maila.</p>
--	---	---

Tel. 943 20 84 44 www.iesunibhi.com uni@iesunibhi.com



“Eraikuntza beti existitu den sektore bat da eta existitzen jarraituko du”

Arrasateko Arizmendi ikastolaren goi mailako zikloen artean eraikuntzaren arloko bi ziklo daude: diseinura bideratutako bat eta obretako arduradun izateko beste bat

Urte biko zikloek, eraikuntzan eraginkortasun energetikoa zelan aplikatu landuko dute aurten lehenengoz. Arizmendi Ikastolan, Lanbide Heziketako eraikuntza alorreko arduraduna da Aitor Axpe. Berak eman du zikloen berri.

Zer iraupen dute zikloek?

Urte biko iraupena dute eta parte hartu ahal izateko beharrezkoa da batxilergoa amaituta izatea. Irailean hasi eta maiatzean amaitzen dira, Arizmendi ikastolan, Arrasateko Ferialekuaren eraikinean.

Zein adin tarteko lagunek parte hartzen duten zikloetan eta non goak izaten dira?

Adin guztietako jendea etortzen da: batxilergoa edo unibertsitatea amaitu dutenak, lanetik dato-

zenak... Horrek askoz aberasgarriago egiten ditu klaseak eta ikasleen arteko hartuemanak. Jatorriari dagokionez, erdiak baino gehiago Arrasateetik kanpokoak izaten dira. Esaterako, orain, Zornotza, Durango eta Mañariko ikasleak ditugu.

‘Obra eta planen burutzapena’ zikloa zertan datza?

Obrako buruzagia izateko zikloak dira eta kalera begirakoa da; hau da, obran denbora asko ematen duen edo emango duen lagunarentzako aproposa. Arlo praktikoa garrantzia handia

“Etxebizitza batean energia zelan aurreztu daitekeen ikusiko dugu”

hartzen du, zikloaren heren bat delako: 600 ordu. Teoria orduetan ikasitakoa sei bat hilabetez praktikan aplikatzeko modua izaten dute ikasleek.

‘Eraikuntza proiektuak’ zikloa zeri buruzkoa da?

Bulego teknikoaren jardunera bideratuta dago. Hainbat modulu daude, baina marrazketa da garrantzitsuenak. Ziklo hau aukeratu duenari marraztea gustatu behar zaio. Bigarren urtean proiektu bi egitea proposatzen diegu: etxebizitza proiektu bat eta eraikuntza arloko beste bat (hotela, kiroldegia...). Ziklo honetan praktikak laburragoak dira: 360 ordu.

Europako Batasuneko lege baten ondorioz moldatu egin da azken ziklo hori.

Bai. Jasangarritasun irizpideak kontuan hartuko dira aurrerant-

zean. Eraikuntzaren moduloari energia berriztagarrien eremua gehitu diogu eta modulo berri bat sortu dugu eraginkortasun energetikoaren ingurukoa. Adibidez, diagnostikoa eginda etxebizitza batean energia zelan aurreztu daitekeen ikusiko dugu, edota eraikuntza berrietan zelan aplikatu daitekeen eraginkortasun energetikoa. Aldaketa onuragarria izan da nire ustez.

Eraikuntzaren sektoreari gogor eragin dio krisiak.

Obra gutxi daude, egia da, eta daudenak obra zibilak dira. Sektore horretan hainbat langile geratu da langabezian. Baina ataka hau onurarako ere erabili daiteke, ziklo honetan parte hartuz, esaterako. Jakintza eta prestaketa maila handitzeko erabili daiteke denbora. Gauza bat argi dago: eraikuntzak beti egon dira eta egongo dira. Gizaki gizaki dene-

tik existitu den sektore bat da eta existitzen jarraituko du.

Eraginkortasun energetikoa lantzeak balio erantsia ematen die hezkuntza zikloei?

Bai. Etxebizitza berrien eraikuntza asko jaitsiko da eta eraikitzen direnak ere energiaren inguruko gaurko legedia bete behar dute. Baina 50eko hamarkadatik gaur egunera arte egindako gehienak energiaren aldetik zulo handi bat dira, asko kontsumitzen dute. Europar energiaren %40 etxeek gastatzen dute. Hor badago bide bat. Zein den? Tamaina batetik gorako eraikinetan birgaitze lanak egiten badira, birgaitze energetiko bat ere derrigor aplikatzea aginduko duen legea indarrean izan nahi du Europako Batasunak datozen urteetan. Beraz, ondo prestatuta daudenek beti aukera gehiago izango dute sektorean aurrera egiteko.

Irteerak ere egiten dituzue.

Kurtso bukaeran eta hasieran irteerak egiten ditugu. Amaieran Bartzelonara joaten gara normalean. Oportora eta Erromara ere joan izan gara hango arkitektura bertatik bertara ezagutzera. Kurtso hasieretan, aldiz, obretara eta lantegietara joaten gara teoriarik ikasitakoa zelan aplikatzen den ikusteko. ■ J. Derteano



ARIZMENDI IKASTOLAREN LANBIDE HEZIKETA

ERAIKUNTZAKO PROIEKTUAK · OBRA ETA PLANEN BURUTZAPENA
GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA · ERIZAINZAREN LAGUNTZA OSAGARRIAK

IZEN EMATE EPEA MAIATZAREN 28TIK EKAINAREN 8RA

Orain da garaia!

943 77 20 25 // WWW.ARIZMENDIPRO.EU



BERBAZ >

“Izaera kritikoa mantendu behar dugu, alternatibak bilatzen ahalegintzeko”

Kontzientziazio lana, hitzaldiak, jardunaldiak... Urtebete eta gero martxan jarraitzen du Durangaldeko M15 mugimendua

Hasieran Andra Mariako elizpean batzen ziren asanbladan. Orain, Pinondon edukitzen dute hitzordua M15 mugimenduko kideek. Eguena, 19:45. Ideiak batzen hasi eta ekintzak prestatzera salto egin dutela azaldu du mugimenduko kide Jon Bastantek.

Urtebete da M15 mugimendua sortu zela. Zelan ikusten duzu orain arteko ibilbidea? Argi-ilunez joan zaigun urtea izan dela esango nuke. Mugimendua indar handiaz hasi zen, eta parte-hartzaileak gutxitzen joan dira. Batzuk gauza askotan daudelako sartuta, beste batzuk oso konbentzituak ez zeudelako... Arrazoi asko egon daitezke. Jarraitu dugunok


“Lehen hiru orduko asanbladak egiten genituen; orain badakigu norantza jo”

esperientzia batu dugu eta hasieran baino helduago gaudela esan genezake. Lehen hiru orduko asanbladak egiten genituen ideiak botatzen. Orain badakigu norantza jo, zer pausu eman, eta ekintzak antolatzen ditugu. Agian txispa bat sortu beharko litzateke berriro jendea kalera irteteko. Iazko ekainean 10.000 pertsona inguru egon ziren Bilboko manifestazioan, eta aurten ez dira horrenbeste batu. Agian jendea desilusionatu egin da, pentsatuko zuten egun batetik bestera konponduko zirela arazoak... Baina astiro-astiro lan eginda eman behar dira pausoak, aldaketara inplikatu.

M15eko kideak zerk batzen zaituztete? Sistemak eragiten digun nekeak. Denok antzerako gauzak gura ditugu: murrizketak amaitzea, politika neoliberalak ez egotea, eta pertsona diruaren eta gauza materialen aurretik ipintzea. Egoera honetatik irteteko alternatibak bilatu gura ditugula esan genezake.

Herritik alternatibak bilatzeko gaitasun horretan sinestea gaitza da?

Jende askok politikarien esku utzi dituzte kontu horiek. Baina lau urterik behin bozkatzeko duzun batengan arazo horiek konpontzeko konfidantza osoa jartzen baduzu, jai duzu. Boterean dagoenak gezurra esaten badu, lapurtu egiten badu... Juridikoki ezin da ezer egin. Herri subiranotasuna berreskuratu behar da; jendeak erabaki dezala zeintzuk diren euren arazoentzako irtenbideak. Ohitu gara dena eginda jasotzera. Denok esan genezake: “Zertan sartuko naiz hor?, esa-



“Elkarren arazoez arduratu eta elkarrekin ekinez gero gehiago izango gara. Biztanleen %99 gara eta elite txiki bat da gure bizitza markatzen duena”

ten dudanak ez du ezertarako balioko”. Ideia txikiekin aldaketa handiak egin ahal dira.

Zer tresna proposatzen duzue aldaketa horietarako?

Gure tresna nagusia asanblada da. Bertan jendeak bere iritzia emateko aukera dauka, eta gero denon artean erabakitzen dugu zer egin: presio taldeak sortu, denuntziarako *performance* bat, kontzientziazio kanpainak... Arazo guztiak ez dira berdinak, eta kasuan kasuko ekintzak egiten ditugu euren aurrean.

Orain zer daukazue esku artean?

Gure asmoa ekainean Banku Etikoaren gaineko jardunaldi bat egitea da, Uztar-

tuz-ekin batera. Asanbladan lotzeko daukagu oraindik zelan landu, baina bai, ekainean gai hori landuko dugu. Energia aurreztearen gaineko jardunaldi bat ere egin gura dugu. Enpresei energia berdea eskaintzen dieten kooperatibak daudela ikusi dugu, eta jendeari alternatiba horren berri eman gura diogu. Udazkenean, *Durango trantsizioan* izeneko ekimena martxan ipini gura genuke.

Zer da 'Durango Trantsizioan' delako hori?

Hiriak Trantsizioan gure herrietan desazkundera aplikatzeko egitasmoa da. Desazkundera zer den? Denok dakigun moduan, gure planetako baliabideak mugatuak dira eta daukagun hazkunde sistema ez da jasagarria. Desazkun-

Jon Bastante •

- Durangaldeko M15 mugimenduko kidea
- 24 urte dauzka

“Durangon elkarte asko dago desazkundera lotutako gaiak lantzen; interes handia dago”

dean gutxiago edukita hobeto bizitzearen ideia lantzen dute. Herriak etorriko den petrolioaren krisirako prestatu gura dira *Hiriak Trantsizioan* ekimenean. Gasteizen badabilta horretan lanean, eta Bilbon ere hasi dira. Durangok aukera asko dituela uste dugu, elkarte asko dagoelako desazkundera lotutako gaiak lantzen; interes handia dago. Desazkunderaren gaineko jardunaldiak antolatu genituen, eta orain arteko jardunaldirik arrakastatsuenak izan zirela esango nuke.

Badago mugimendua.

Bai, eta batzuetan gaitza izaten da ahaleginak ez bikoiztea. Ez bagara denok elkartzen, bakoitzak bere aldetik gauza antzerakoak antolatu ditzakegu. Indarrak batu gura ditugu.

“Ez dago ezer egiterik”, “Agintean daudenak lotsabakoak dira”, “Nik zer egin dezaket ba?”. Sarritan jendea motibatzea ez da erraza. Zer egin?

Zer edo zer aldatzea gura bada, lehenengo norbere burua aldatu behar da. Nire bankua zarratzeko zorian dagoela? Ba agian beste modu batera gorde beharko ditut nire aurrezkiak. Modu individualista baten pentsatzeari utzi eta kolektiboan pentsatzen hasi beharko ginateke, gertukoenetatik hasita; familia, auzokideak... Elkarren arazoez arduratu eta elkarrekin ekinez gero gehiago izango gara. Biztanleen % 99 gara eta elite txiki bat da gure bizitza markatzen duena: zelakoak izan behar garen, bidetik ez garelako irten behar... Arinago ere lortu izan da aldaketak egitea. Zergatik ezingo da orain? Gugandik hasita, autokritika apur bat eginda aldaketa txikiak egin ditzakegu. Kanpoan dagoena ikusi eta izaera kritikoa mantendu behar dugu, alternatibak bilatzen ahalegintzeko. Ez bagara kritikoa, honek ez dauka irtenbiderik. ■ A.Ugalde

@anbotokultura

KULTURA[>]

GORKA URBIZU > BERRI TXARRAKEN ABESLARIA

“Kontzertu bakoitzak badu bere saltsa, eta maite dugu hori”

Ekainaren 1ean Durangoko Plateruenean eskainiko du Berri Txarrak taldeak kontzertua. Andaluziatik eta Valentziatik bueltan, Lekunberritik erantzun ditu galderak Gorka Urbizu abeslari eta gitarrajoleak

Erritmo oso bizian zabiltzate batetik bestera bira hasi zenutenetik. Zelakoa izaten ari da Haria diskoaren aurkezpen bira?
Bikaina, jendeak oso ondo hartu du disko berria eta horrek asko betetzen gaitu. Euskal Herrian zein Estatu mailan harrera oso ona izaten ari da eta hilaren 18an diskoa Europa osoan kaleratu dute.

Bira non dabil orain?
Oraintxe etxean, Lekunberrin; astelehenean bueltatu ginen Andaluzia eta Valentziatik.

Asteburuan kontzerturik?
Asteburu honetan Valladoliden eta Elizondon gara jotzekoak.

Orain arteko kontzertuetatik bereziki gogoratzen duzunik?
Bartzelonako eta Madrilgo aurkezpenak oso-oso hunkigarriak izan ziren, sarrerek agortu ziren eta magia berezia lortzen duzun gau horietakoak. Londreseko gauak ere gogoangarriak izan ziren, horietako batean Cancer Bats taldea ezagutu genuen eta harreman polita sortu da.

Noiz arte daukazue zuzenekoak lotuta?
Momentuz uda bitartekoak daukagu lotuta, baina uda ondoren ziurrenik Europan zehar bira luze bat egingo dugu eta han-hemenka jotzen jarraituko dugu, Haria lau haizetara zabalduz.

Ilusio bereziagaz itxaroten duzuen kontzerturen bat?
Hurrengoaren zain egoten gara

“Kantuen zerrenda taula gainera igo baino ordubete lehenago atontzen dugu”

“Disko berriko kantak oso ondo hartu ditu jendeak, batzuk ezinbesteko dira jada”

beti. Kontzertu bakoitza ezberdina da eta zirrara horrek ematen dizu aurrera egiteko grina. Kontzertu bakoitzak badu bere saltsa, eta maite dugu hori.

Durangorako sarrera asko saldu dituzte dagoeneko. Diskoa aurkeztu duzuen beste kontzertuetan ere halako harrera beroa egin dizue publikoak?
Harritzekoa da jendearen harre-
ra horrenbeste urteren ondoren, beti egongo gara zorretan gure zalegoarekin.

Zelako kontzertua izango da Durangokoa? Zer kanta zerrenda prestatu duzue?
Kantuen zerrenda taula gainera igo baino ordubete lehenago atontzen dugu, beraz ezin jakin. Energia trukea egon dadila, hori da beti garrantzitsua.

Aurreko disko aurkezpen kontzertuetatik zerk bereizten ditu Haria diskoaren birakoak?
Atrezzoak pittin bat aldatu dugu, nahiz inoiz ez diogun itxurari garrantzia berezirik eman. Galder dago baterian, eta Hariakoak gehitzearekin batera, beste kantu batzuk ere berreskuratu ditugu.

Zelan funtzionatzen dute kantek?
Bikain. Dagoeneko 30 bat emanaldi egin ditugu bira honekin, eta disko berriko kantuak oso ondo hartu ditu jendeak, batzuk dagoeneko ezinbesteko direla esango nuke: Albo-Kalteak, FAQ, Makuluak...

Zer ezaugarri dauzkate kantek?
Betiko Berri Txarrak emozioa eta indarraren arteko nahasketa mantenduagatik, bide berriak urratu ditugu. Melodiek beste sakonera bat dute, eta hitzetan ere bada zer aztertzea: aurrera egiteko sena aldarrikatzen dute, aurreko diskoaren iluntasunetik aldentze moduko bat islatzen dute. ■ I. Esteban



Koaderno eta grabagailua, badaezpada ere beti eskura

1994an Lekunberrin sortutako talde nafarraren zazpigarren diskoko pare bat kanta Gorka Urbizuk bakarka eskaini zituen Platerueneko Kantuaren Kantoia zikloan, 2011 urte amaieran. Zuzeneko horren oroitzapenei buruz, honakoa esan du: “Sano urduri nengoen, halakoetan zure ohiko jardunetik kanpo baitzaude, baina oso ondo pasa nuen”.

Kafe antzokiko ekimen hura gorai-patu egin du musikariak: “Sentitzen nuen jendea adi zegoela eta hizketaldi atsegina izan zela uste dut. Bonboa eramatera animatu nintzen eta komeriak izan nituen, baina oroitzapen ona daukat: ekimen txalagarria da”.

Ross Robinson ekoizlearekin, Veneceko estudioan, 50 egunetan grabatu zuten taldearen zazpigarren diskoa, Haria izenekoa. Musika kritikarien lore asko eta entzuleen harrera beroa jaso ditu azken hilabeteotan Berri Txarrak taldearen lan berrienak.

Biraren abiaduran sorkuntzarako astia ateratzea zaila izaten den arren, koaderno eta grabagailua “badaezpada ere beti prest” edukitzen ditu Gorka Urbizuk: “Diskoak bere bidea egin behar du, eta guk sormen aldetik arnasa hartu: musika berria entzun... Bere denbora behar du proiektu bakoitzak eta ez da komeni hori behartzea”.

ARGAZKIGINTZA >

Kultura fotografikoa zabalduko du bigarren urtez Begira jaialdiak

Hainbat tailer, argazki proiektio saioak eta nazioarteko argazkilarien erakusketak egongo dira, ekaina eta uztailean

Ekainean eta uztailean burutuko dituzte Begira argazki jaialdiaren bigarren edizioaren barruko ekitaldiak. Helburu bikoitzagaz antolatu du Kinua Argazki Elkarteak jaialdia: argazkigintzan euren izena duten egileen lana ezagutzera eman, eta argazkigintzan euren bidea abiatu berri duten gazteak bultzatu gura dituzte.

Argazkigintzan bidea abiatu berri dutenak bultzatu gura dituzte

Bost erakusketa izango dira, Durangoko Arte eta Historia Museoan, San Agustin kulturgunean eta Ezkurdiko erakusketa aretoan. Gainera, Pinondo etxean, tailerrak eta argazki proiektio saioak egingo dituzte.

Ekainaren 1ean zabalduko dute Begira jaialdiaren barneko lehenengo erakusketa: Durangoko Museoan ikusgai izango da Federico Clavarino Turinako artista gaztearen lana, ekainaren 24ra arte. *Ukraina Passport* dauka erakusketak izenburua, eta herrialde hartako errealitate sozial eta politikoa agertu gura du.

Natacha Marloren argazki instalazioa, *Hexápoda* erakusketa kolektiboa edota Mikel Ibarrolaren *Pasos* ere ekainaren hasieratik egongo dira ikusgai.

Tailer teoriko-praktikoa

Oscar Molina sortzaileak gidatuko du *Detrás de la cámara* tailer teoriko-praktikoa. Ekainaren 16an eta 17an izango dira saioak. Argazkilaritza proiektu pertsonal bat zelan garatu landuko dute. Izena emateko, 658708264 zenbakira deituta edo e-posta bidez: info@begiraphoto.com. ■ I.E.



GEURE DURANGALDEA

Miren Amuriza Bertsolaria



Ezin dut, eta zer?

Gaurkoan liburu bat gomendatu gura nizueke, egunotan apunte artean zoratuta zabilzatenoi, super-seme baten gurasooi, edo super-ama baten seme-alaboi, agenda lehertzeaz duzuenoi, kapa ikustezinak estutzen zaituztenez itomena sentitzen duzuenoi, izarapean ezkutatu eta lantzean behin "ezin dut" pentsatzen duzuenoi... Denoi beraz.

Iaz argitaratu zuen Uxue Alberdik *Ezin dut, eta zer?* ipuina. Bertan neskatila irudimentsu bat agertzen zaigu. Aitaketen-gabe gogorazten dio super-neska bat dela bekorian muxuak emanez, berak tripan edo oinetan ere jaso nahilitzuke laztanak ordea. Gainera badaki ez dela super-neska bat; neska horiek hegan egiten baitute eta berak ez. Hala ere behin eta berriz ahaleginduko da hegaz egiten aita pozik egon dadin. Baina batzuetan super-neskaren kapa estu estu sentitzen du eta orduan... Hortik aurrerakoa ezagutzea zeuon esku uzten dut.

Gaurkoan ipuin bat gomendatu gura nizueke, egunotan apunte artean zoratuta zabilzatenoi

Adin batetik aurrera ezkutatetan edo tabetan jolasteari uzten diogun legez, haur literatura irakurtzea ere alboratu egiten dugu. Uxuerenarekin batera, zuen txikitako ipuinak edo oraintsuago argitaratuak irakurtzea gomendatuko nizueke; aspaldiko oroitzapenei kuku bat egiteaz gain, uste baino gehiago ikasteko eta hausnartzeko aukera eskaintzen dute eta.

Bien bitartean kapak estutzen bazaituzte, animo! Obamak harrotasunez "Yes, we can" aldarrikatzen zuen bezala, zergatik ez dugu bada geuk ere "Ezin dut, eta zer?" lasai esango?

BERTSOLARITZA >

Bertso idatzien lehiaketako hainbat sari Durangaldera

Gernikan jokatu zuten Bertso idatzien txapelketaren finala

Durangaldeko hainbat bertsolari gazte saritu dituzte Bertso Idatzien Bizkaiko Eskolarteko txapelketan. Gernikako Seber Altube ikastolan izan zen txapelketaren finala, joan zen barikuan, eta 144 entzuleren aurrean jardun zuten bertsolariek. Abadiñoko Aitor Bizkarra,

Abadiñoko, Berrizko eta Durangoko bertsolariek jaso dituzte sariak

Itxaro Juaristi, eta Bittor eta Txaber Altube; Durangoko Xabier Olaskoaga; eta Garoa Angiozar berriztarra izan ziren sariak jaso zituzten eskualdeko bertsolariek.

Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako sailean saritu zuten Bittor Altube; DBHko bigarren mailako lehenengo eta bigarren sariak jaso zituzten Garoa Angiozarrek eta Txaber Altubek; DBHko bigarren eta hirugarren mailatan saritu zituzten Aitor Bizkarra eta Itxaro Juaristi; eta laugarren mailako atalean hirugarren geratu zen Xabier Olaskoaga.

ZINEMA >

Gartxot aurkeztuko dute Durangoko liburutegian

Filmaren egileek eskainiko dute ekainaren 1eko hitzaldia

Ekainaren 2an eta 3an, Durangoko Zugaza zineman eskainiko dute *Gartxot, konkista aitzineko konkista* filma. Berbaro euskara elkarteak antolatuta, filma aurkezteko berbaldea eskainiko dute sortzaileek aurreko egunean, 19:00etan, Durangoko udal liburutegian: Edorta Barruetabeñak eta Juanjo Elordik.

Filmean kontaktzen dengarai historikoaren zertzeladak emango dituzte egileek *Gartxot, Nafarroaren deskonkista kolektiboa* berbaldean. Gartxoten kondairaren bidez, Nafarroaren konkista

kontaktzen zuen Campionen *Itzaltzuko bardoa* du filmak oinarri, eta Benito Lertxundiren kantak dira soinu banda. ■ I. E.



REP. 21408

A. Urreta podólogo

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS


Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podinara Urreta Jainaga
PODOLOGOIA 188. Elkargokidea

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

Autoak 2012





Trafikoa da Durangoko kutsadura iturri nagusia: zelan ibili garbiago?

2010ean Mugikortasun jasangarrirako Plana diseinatu zen Durangon. Herri barruko joan-etorrietan autoaren erabilera gutxitzea da plan horren helburu nagusia. Izan ere, Durangon trafikoa da kutsadura iturri nagusia, industriaren gainetik

Urtean 40.550 tona gas kutsatzaile isurtzen dituzte ibilgailuek

Kotxez Durango barruan mugitzen direnen % 25ek lanerako hartzen du autoa

Duelazazpi urte airearen kalitatearen neurketek alarma gorria piztu zuten Durangon. Legeak ezarritakoa baino 35 aldiz handiagoa zen airean zegoen elementu kutsatzaileen kopurua. Ordutik, airearen kalitatea hobetzeko hainbat neurri hartu dituzte. Azken datuek diotenez, airearen kalitatea ona izaten da Durangon orain, hamar egunetik seitan.

Baina zergatik ekarri airearen kalitatea autoen gehigarrira? Autoak, furgonetak eta kamioiak, direlako aire kutsatzaile nagusiak Durangon. Ikerketek horrela esaten dute: berotegi-efektua sortzen duten gasen %44 garraioek isurtzen dute. Urtean 40.550 tona gas kutsatzaile irteten da ihes-hodietatik.

Datu horiek kontuan hartuta, herri barruan autoen erabilera gutxitzeko Mugikortasun Plana egitea erabaki zuten 2009an. Parte-

hartze foroaren bidez egin zuten diagnosis eta plana, eta 2010ean onartu zen. Hamabost urtetarako egitasmoak batu zituzten bertan.


Mugikortasun ohiturak

Durangon azken hamar urteotan biztanleria %11 hazi da. Auto kopurua ere asko hazi da: azken sei urteetan %20 egin du gora, eta gaur egun 11.000 auto inguru daude.

Durango barruan mugitzeko durangarren %60 oinez ibiltzen da, %18 autoz, eta %5k bizikleta hartzen du. Datuak hobetu egin direla azaldu du Agenda 21eko teknikari Aitor Larruzeak. 2006an %30ek hartzen zuten autoa herri barruko joan-etorrietarako.

Autoa hartzen dutenetik, %25ek lan kontuengatik hartzen du, %15ek ikasketengatik, %12k medikuarenera joateko eta beste %12k erosketak egiteko. ■ A. U.

Berotegi-efektua sortzen duten gasen emisioa, Durangon



AMAYA

AUTOEN KONPONKETAK S.L.



TEL.: 946 812 123 FAXA: 946 203 818

UAI, 1 INDUSTRIAGUNEA (Orozketa errepidea)
48215 Iurreta / Bizkaia 126 Posta Kutxa Durango

e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com

Grupo CATALANA OCCIDENTE

RUEDA BILBAO ASEGUROAK

Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 - Faxe: 94 681 65 77
e-maila: jrueda@segurosbilbao.com

Durangotik oinez ibiltzeko ohitura hartzea helburu

Herri barruan autoa ez erabiltzea da Mugikortasun Planaren helburu bat

“Alde Zaharra oinezkoentzat ipini zenean jende askok protestatu zuen, baina gaur egun herritarrak ohituta eta gustura daude aldaketa horrekin”. Agenda 21eko teknikari Aitor Larruzeak azaldu duenez, Durangon autoak herrigunetik kentzeko hainbat neurri agertzen dira Mugikortasun Planean.

Larruzeak nabarmendu duenez, mugikortasuna hobetzeko ohiturak aldatu beharko dira: “Autoagaz etxe pareraino heltzen ohituta daude herritarrak, eta hamar minutuz oinez ibiltzea ez da ezer kostatzen”. ■ A. U.


Herrigunean auto gutxiago ibiltzeko obrak egingo dituzte

Egunean 6.000 eta 7.000 auto artean pasatzen dira Ermodo kaletik. Trafiko ugariako lekua da, baina oinez ere jende asko ibiltzen da. Datu bat: 10:00etatik 21:00etara, orduro 5.000 pertsonak zeharkatzen dute Ermodo oinez.

Sanagustinalden eta Zumalakarregi kalean egin dutenaren antzera, herriguneko hainbat kaletan auto gutxiago ibiltzeko urbanizazio lanak egingo dituzte datozen urteetan. Montevideo kalean dabil-

tza orain beharretan. Espaloiak zabaldu eta aparkalekuak gutxitzen hasi dira bertan, eta lanen bigarren fasean daude. Ermodon eta Frai Juan Zumarragako zati batean ere horrelako lanak egingo dituzte.

Mugikortasun Planean, trenbidea dagoen lekua ere hartu dute kontuan: tren lurperatu eta gero, bertan etorbide bat atontzea da asmoa, eta oinez eta bizikletaz dabil-tzan herritarrek lehentasuna edukiko dute.



Eskoletara oinez joateko Oinez Busa zabaldu gura dute

Eskola-umeak ikastetxeetara oinez eta elkarrekin joateko ekimena da Oinez Busa. Landako Eskolan hasi zuten iaz, eta Zaballarrara zabaldu dute aurten. Ikastetxe guztietara apurka-apurka zabaldu gura dute. Landakoren kasuan, autoz ikasleen %10 joaten zen, eta ekimenagaz ume horietatik %20 oinez joatea lortu zuten.



Poligonoetan mugikortasun planak bultzatu gura dituzte

Langileak beharrera garraio publikoan joatea errazteko, poligonoetan mugikortasun planak bultzatu gura dituztela azaldu du Aitor Larruzeak. Poligono berrietan derrigorrezkoa izango da horrelako plana edukitzea. Martxan dauden industriaguneez aktibitate ekonomikoaren zergetan %50eko onurak izan ditzakete.



Bidegorri sarea alboko herrietara luzatuko dute

Azken egunotan, bidegorria Tabirara heltzeko proiektua daukate eskuartean udalean, eta handik Izurtzagaz lotu arteko bidea egingo dutela aurreratu du Aitor Larruzea Agenda 21eko teknikariak.

Iurretara ere luzatuko da bidegorri sarea. Herri bien arteko muga, zubian, biribilgune bat egiteko asmoa dago, eta obra horregaz batera bidegorria jarriko dute.



Semaforoak kentzen hasi dira apurka-apurka

Trafikoa bideratzeko, semaforoak kendu eta oinezkoentzako zebra-bide garaiak ipini dituzte herriko hainbat lekutan. Apurka-apurka semaforo guztiak kentzea da asmoa.

Aitor Larruzearen berbetan, semafoetan gelditu beharrek eta atzera autoa martxan jartzeak airearen kalitatean eragiten dute. Horrez gainera, semaforo barik bide segurtasuna hobetzea lortu gura dute.

Aparkalekuak, erdigunetik kendu eta periferiara

Batez ere kanpotik datozen bisitarien-tzako aparkalekuak, Durangoren kanpoaldean kokatuko dituzte datozen urteotan.

San Roken duela gutxi ipini dute aparkaleku berria, eta Larruzeak azaldu duenez, Tabiran beste aparkaleku bat jarriko dute. Espazio berriak laster jarri beharko direla azaldu du, Iurretan, Fundiguel alboko aparkalekuan etxeak egiterako. TAO gunea ez dute gehiago zabalduko.



Errekarga lekuak eta aparkalekuak auto elektrikoentzat

Etorkizunean auto elektrikoaren erabilera zabalteko denerako errekkarga puntuak eta aparkaleku bereziak ipiniko dituzte Durangon.

Orain momentuan auto elektrikoak edo hibridoak dauzkaten herritarrek onura fiskalak dituztela azaldu du Agenda 21eko teknikariak. Udalaren zirkulazio zergan %75eko hoberia eduki dezakete horrelako autoak dituzten durangarrek.



- **TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK**
Atera ezazu teorikoa 5 egunetan, %99k gainditzen dutelarik.
- **CAP ikastaroak profesionalentzat**
- **Teoriko orokorra euskaraz ONLINE**

HEMEN GAUDE:

Urarka kalea, 20 • Tel.: 94 658 34 41 • ELORRIO



Durungaldean badugu auto elektrikoak adibiderik: Berrizen atez ateko zabor bilketa egiteko erabiltzen duten autoa elektrikoa da. Furgoneta honetan batzen dituzten hondakinak konposta egiteko erabiltzen dituzte.

Automobilaren arloko iraultza: ibilgailu elektrikoak eta hibridoak

Petrolioaren krisiak mugikortasunaren planteamendu berriak aztertzea eragin du: oraingoz merkatuan dagoen proposamen interesgarriena auto elektrikoa edo hibridoa da.

Gasolinagaz mugitzen diren autoak arazo bi dituzte: petrolioaren garestitzea eta CO₂ isurketak sortzen duen berotegi efektua. Automozioan diharduten enpresa handiek agortuko ez den sistema baten bila dihardute. Gainera, ingurumena errespetatuko duen autoa bilatu

gura dute. Azken urteotako ikerketek elektrizitate bidez mugitzen diren autoen aldeko apustua egin dute. Momentuz, errepideetan ikusi ahal ditugun auto elektrikoak kopurua ez da handia, baina baliteke automobilaren iraultza elektrikoak arrakasta izatea.

Nola funtzionatzen du auto elektrikoak?

Auto mota honek ohiko motorra kendu eta motor elektrikoak du. Motor elektriko hori elektrizitatez hornitzeko bateria handi bat darama. Bateriak, etxeko elektrizitate sarera lotuz edo kalean jarritako tokietan kargatu daitezke.

Gaur egun auto elektrikoaren inguruan hiru teknologia daude: auto guztiz elektrikoak, hidrogenozko zeldaduna eta hibridoak.



abantailak

– CO₂rikez du isurtzen. Beraz, petrolioak baino gehiago errespetatzen du ingurumena. Ez du berotegi efektua sortzen.

– Elektrizitatea petrolio baino merkeagoa da. Beraz, bateriak kargatzeak gasolina erostea baino merkeagoa da.

– Elektrizitatea hornitzeko sarea eginda dago.



eragozpenak

– Bateriagaz kilometro gutxi egin daitezke oraingoz.

– Bateriak garestiak eta pisutsuak dira.

– Elektrizitate motorrek potentzia gutxi dutenez, autoak txikiak izan behar dira.

– Litioko bateriak erabiltzen dira. Munduko litioren %50 Bolivian dago.

Gaur egun, auto elektrikoaren inguruan hiru teknologia daude: auto guztiz elektrikoak, hidrogenozko zeldaduna eta hibridoa

Abadiñoako Eroskik auto elektrikoak kargatzeko postu bi eskaintzen ditu

Abadiñoako Eroski hipermerkatuan auto elektrikoaren bateriak betetzeko postu bi daude. Aparkalekuaren alde batera, autoa aparkatu eta terminalean konektatu daiteke. Prezioari dagokionez, bateria kargatzea diesela baino %25 merkeagoa da.

IBIL da sistema elektrikoaren kargaren kudeatzailea. Zerbitzu hau Energiaren Euskarri Erakundearen (EEE) eta Repsolen artean sinatutako lankidetzaren ondorioz eratu zen. Ibilgailuaren maletategian dagoen kargagailua ibilgailura konektatu behar da lehenengo, eta gero, konektatu birkarga-zutoinera edo zutabera.



EROSKI gasolinera

Eroski Abadiño-ko

Bakarrik **via xpress-ean**

Urteko 365 egunak 24 orduak zabalik

ORDAINKETA AUTOMATIKOA

-%2-ko DESKONTUA

Hornitzailea aukeratu, txartelarekin ordaindu eta %2-ko deskontua lortuko duzu hornitzaile hau aukeratzeagatik

VISA, MasterCard, Repsol, Eroski, etc.

Norberak bere autoa ezagutzeko eta konpontzeko ohitura zabalitzen

Iurretako Repara Tu Vehículo zerbitzuak, mantenimendu eta konponketak dirua aurreztuz egitea eskaintzen du. Mekanika kontuekin disfrutatzea ere badu helburu.

Bezeroak egin behar ditu konponketa edo mantenimendu lanak, baina aholkularien laguntza edukiko du

Repara Tu Vehículo zerbitzuan, autoa konpontzeko lekua eta materiala eskaintzen dute. Aurrezteaz gainera, bezeroei disfrutatzen duten modu bat eskaini gura diete. Bezeroak egin behar dituzten konponketak edo mantenimendu lanak, baina aholkularien laguntza edukiko du. Alain Mugerza da aholkularietako bat. Denetariko bezeroak daukate: mekanikara afizionatuak, jubilatua, lehen aldiz doazen esperientzia bako gazteak... "Zabalduta egin da zerbitzua, ez da mekanikoentzako soilik". Edozeini zabalduta egon arren, apur bat saltseroa izanez gero hobeto, Mugerzaren iritziz. Bezeroaren arabera, laguntza intentsiboago edo lasaiago eman erabakitzen dute.

Denetariko bezeroak daukate: mekanikara zaletuak, jubilatua, lehen aldiz doazen esperientzia bakoak...

Alemanian eta AEBetan arrakasta handikoak dira era honetako jarduerak. "Autoa gure bizitzako parte da. Egunero eskutan darabilzun gauza bat ezagutzeko garrantzitsua da". Hemen ere goraka egi da ohitura hau: "Urtetik urtera jende kopurua handitzen ari da".


Bestalde, zerbitzuak ingurugiroa hobetzen ere lagun dezake, Mugerzak dioenez. "Gaur egun edozein lekutan botata ikusten dira gorpilak, latak... Hemen, jendeak leku bat dauka olioaldatzeko, eta guk birziklatzeko hartzen dugu".



Ikastaroetan lehenengo praktikak egiteko aukera

Uda hasieran eta ondoren ikastaroak eskaintzen dituzte Repara Tu Vehículo-koek. Olio aldaketak, pastilla aldaketak... Mantenimendu eta konponketekin lehenengo kontaktua egiteko aukera izaten da.

Alain Mugerzak azaldu du astiro eta pausuz pausu egin beharreko prozesua dela. Lehenengo olioaldatzen hasten egi dira, errazena delako. Baten batek probatzen sakondu gura badu eta laguntza behar duela ikusten badute, beste egun batean etorri eta denboragehiagoz lantzea proposatzen diete.



Produktu guztiak eskura, modu erosoan erabiltzeko

Merkatuan dauden produktu eta ordeko pieza guztiak eskuagarri daukate Repara Tu Vehículo. Bezeroak behar duena topatzen saiatzen dira. "Pertsona batek deitzean, noiz etorri gura duen eta zer auto daukan esaten digu. Behar duenerako boxea prest edukiko du, behar duen ordeko pieza edo produktuagaz". Erabiltzailea eroso egotea da helburua.

Zentroan dagoen dendan produktuak eskura daude. Interneten ere badago aukera eskaerak egiteko, webgunean: www.reparatuvehiculo.es.



Otra mecánica es posible

- Erraz, denbora eta dirua aurreztuz
- Zure eskura jarriko dugun tailer batean
- Aste osoan zehar (asteleheneretik igandera 09:30etik 21:30era)

<p>24€ -tik aurrera</p> <p>Olio eta filtro aldaketa</p>	<p>29€ -tik aurrera</p> <p>Garbitu tapizeria</p>
<p>13€ -tik aurrera</p> <p>Pneumatiko aldaketa (pneumatikoak ez daude prozioan)</p>	<p>44€ -tik aurrera</p> <p>Bidaiaru-lekuko eta erregaieren airearen filtro aldaketa</p>

Eskaintako zerbitzu guztiak gauzatzeko 3 o. 15 min.-an box bat alokatzea, Gulf 10w. 40 olio erabiltzea, Manu harrimintak erabiltzea eta RTV osagarriak erabiltzea derrigorra da prezio hauek bafatzeko. Begiratu beste prezio batzuk.

Tunning estetikoak modan egoteari utzi dio urteotan, krisiaren ondorioz

Sasoi batean boladan zegoen autoari aleroiak eta bestelako elementuak txertatzea. Orain ez. Dagoenean ere ondo dago autoa. Ez da hain itsusia, ondo erreparatuz gero. Mantentzen dena tuning funtzionala da: balzatak, esekidura...



Espainiako Industria Ministeritzaren lege batek, tuning prozesua gehiago garestitu du

Japonia, Alemania eta Estatu Batuak dira tuning arloan erreferente nagusiak

Kirurgia plastikoa ez da hain beharrezkoa gaur egun. Autoari 'aurpegi' aldatzea ez dago modan. Aleroiak eta autoa alde guztietatik apaintzea helburu zuten elementuak gero eta gutxiago ikusten dira. Krisiak zuzenean eragin dio tuning zaletasunari. Espainiako Industria Ministerioaren lege batek, tuning prozesua are gehiago garestitu du, elementu guztiak homologatuta edukitzera behar izaten baitu. Traña-Matienako Japantuning dendakoek bertatik bertara bizi izan dute aldatzea hori eta negozioa gaur eguneko eskakizunetara moldatzeko asmoa dute. Laster Durangon autoak konpontzeko tailerra irekiko dute eta tuning elementuek dendako atal bat gehiago baino ez dute osatuko.

Dena dela, batez ere tuning estetikoak da jaitsi dena. Helburu moduan autoa apaintzea bakarrik duena. Tuning funtzionalak oraindik funtzionatzen du. Izan ere,

"tunninga ez da autoa larrosaz pintatzea eta musika topera entzuteko elementuak gehitzea bakarrik", argitu du Japantuning dendako Eneko Usabelek. "Tunninga autoa pertsonifikatzeko egiten den aldatzea oro da". Beraz, esekidura edo balzatak aldatzea ere tuning egitea da: Baina tuning funtzionala, autoaren errendimenduari zuzenean eragiten diolako.

Euskal Herriak ez du Japoniagaz zerikusirik: "Diotenez, Japoniako gazteek euren soldataren %80a autoan gastatzen dute". Japonia, Alenia eta Estatu Batuak dira tuning arloan erreferente nagusiak. Gainera, Estatu Batuetan ez homologazio arazorik, hemen dagoen moduan.

Eskaera arraroak

Urte hauetan guztietan hainbat eskaera bitxi izan dituzte Japantuningeko kideek: "Behin, atzeko jarlekua kendu eta jarleku indibidual

bi jartzeko eskatu zigun bezero batek. Horrek eskulan handia eskatu zigun eta homologazioa ere konplikatu izan zen. Nire ustez, erakusketaren baterako autoa zen eta ez kalean ibiltzeko". Gaur egun, eskaera ohikoago bat darabilte

eskuartean: "Lexus bat moldatzeko eskatu digu bilbotar batek. Kolora, esekidura, balzatak, hagunak eta tapizeria aldatzeko eskatu digu. Tapizeria aldatzea zaila da, lanean ari garen bitartean ezin delako autoko kontaktua ukitu". ■ J. D.







neumáticos ETXEBARRIA






Urbitearte, 6 Matiena
(Hiper Eroski aurrean)

Tel.: 94 623 25 20

pneumatiko marka guztiak!



Alerioia: gero eta gutxiago ikusten den apaindura

Usabelek garbi dio: "Alerioen moda asko jaitsi da". Homologatu egin behar dira eta horrek gastua dakar: "Ez du merezi. Norbaitek aleroia ipini nahi duela esan badit, diru hori balazta berrietan gastatzeko aholkatzen diot". Alerioekin batera, xasiean ipini ohi ziren apaindura denak ere gero eta gutxiago ikusten dira. Krisia hasi zenetik, beherakada "nabarmena" izan ei da tuning mota bi horietan.



Subwoofer barik ere musika ozen entzun daiteke

Alerioen moduan, subwoofer bozgorailuak ere ez dira lehen bezain erakargarriak. Izan ere, oso gutizia garestiak dira: "Lanordu asko eskatzen du altaboz horiek ipintzeak. Dena desmuntatu behar da eta ez du merezi". Sekula ez da moda masiboa izan maletategia bozgorailu mota horiekin atontzea, baina sasoi batean ohikoagoak ziren. Orain, jendeak erabilera praktikagoa ematen dio maletategiari.

Lepodun hagnak modan, autoari zabalera emateko

Lepodun hagnak dira gurpiletik kanpo alderantz luzatzen diren osagarriak. Horrela, autoak zabalago dela ematen du. Normalean, aurreko gurpiletan ohikoak ipintzen dira eta atzean zabalagoak, homologazio arauetara egokitzeko. Neurriak auto markaren arabera aukeratu dira. Esaterako, Usabelen ustez, BMW markako batean, aurrean 18x8,5 zm-koek eta atzean 18x9,5 zm-koek luzitzen dute gehien.



Esekidura eta balaztak aldatzen dira gehien

Hagunekin batera, esekidura eta balaztak dira autoan gehien pertsonalizatzen diren elementuak. Esekidurari dagokionez, gogorragoak gura izaten ditu jendeak. Aldaketa egiterakoan esekidura berriaren konpresioa eta hedadura kontuan hartu behar dira, gogortasunaz gainera, autoa errepideari ahalik eta gehien itsastea baita helburua. Autoa errepideari zenbat eta lotuago, orduan eta seguruago.

Zuri kolorea dago boladan gaur egun

Moda zelan aldatzen eta birsortzen den misterio bat da. Tuning-ean ere gaur modan dagoena bihar zaharkituta geratu daiteke. Hala ere, tendentziak jarraitzeko joera hartzen du jende askok eta bestean autoetan ikusten dutena euren ere nahi izaten dute. Alerioiak, llantak eta antzerako elementuak garestiak dira, baina bada tendentzia bat ekonomikoki ahalegin handirik eskatzen ez duena:

autoen kolorea. Auto bat erosterakoan kolore bat edo bestea aukeratu daiteke prezioan aldaketa handirik pairatu gabe.

Gaur egun, zuri kolorea dago modan. Kaleko argiagaz sortzen duen kontrastea erakargarria omen da: "Ohartzen bazara, kalean ikusten diren Volkswagen Siroco gehienak zuriak izaten dira. Azken aldian, autoetan zuria da gehien nabarmentzen den kolorea".



SPORT DURANGO, S.L.

ZERBITZU OFIZIALA:



TAILERRA - MEKANIKA - TXAPA - PINTURA - ERAKUSKETA

Fabrikako
7 URTEKO
BERMIA
modelo guztietan



Murueta z/g (Hiper Eroski aurrean) Matiena - Abadiño - Tel.: 94 620 33 92 - 94 681 76 44

UDABERRIKO SEGURTASUN-PLANA

EGURALDIAK ORAINDIK SEGURTASUNIK EMATEN EZ BADIZU, LORTU EZAZU ZUK ZEUK.



Autoaren segurtasunerako ezinbestekoa da pneumatikoak bikain izatea.

Begiratu ondo gurpilak, astirik galdu gabe.

RENAULTen eskaintza zoragarriak ditugu zure zain, Michelin etxeakoak.

NEURRIA	PREZIOA
205/55 R16 91V	103€
205/60 R16 92H	126€
185/60 R15 84H	94€
195/65 R15 91H	78€

www.renaultservicios.es

RENAULT SERVICIOS

Eskaintza honek 2012ko maiatzaren 31ra arte iraungo du Bizkaiko Renault sarean.
Prezioak eskulana, balbula, ekotasa eta BEZa barne ditu.



RENAULT *recomienda* **elf**



GAURSA AUTOAK

ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA / KALE NAGUSIA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO www.gaursaautoak.com

LITERATURA >

“Bakarrik nagoenean beti nabil idazteko gaiak pentsatzen”

Batxilergoko lehenengo ikasturtea amaitu du Ainhoa Urienek asteen. Letrak, irakurtzea eta idaztea ditu gogoko. Euskaltzaindiak antolatzen duen Azkue lehiaketaren narrazio arloko bigarren saria jaso zuen eguaztenean

Lehenengo aldia izan da Azkue literatur sariketara aurkeztu zarena?

Iaz ere aurkeztu nuen lan bat lehiaketa honetara, baina ez nuen saririk lortu. Aurtun, saririk jaso nezakeen esperantza barik bidali nuen, baina lana bidalita ezer ez nuela galduko pentsatuta. Sorpresa handia hartu dut sariaren berri emateko deia jaso dudanean. Ez nuen espero.

Zelakoa izan zen Euskaltzaindiaren Bilboko sari banaketa hori?

Oso diplomatikoa (barrez)... Baina ondo egonzen. Hamar bat saridun batu ginen ekitaldian, eta polita izan zen. Lan bakoitzaren zati bat irakurri zuten ekitaldian.

“Prosaren barruan olerkia sartu izana egin zaio epaimahaiari deigarri”

Zer nabarmendu du epaimahaiak zure narrazioetik?

Epaimahaiko kide batek esan zidanez, prosaren barruan olerkia sartu izana egin zitzaion deigarri.

Zer lan da aurkeztu duzuna?

Gauaren beharra du izenburua. Denok darabagun bizitza errutinazkoaren azpian dauzlagun pentsamenduei, egunerokotasunetik ateratzen laguntzen gaituenari buruzko gogoetatik sortutako narrazioa da.

Zein da kontakizunaren ideia nagusia?

Izenik bako pertsona baten bizitza errutinazkoa kontatzen da narrazioaren lehenengo zatian. Hirugarren pertsonan dago parte hori idatzita, kanpotik ikusten duen norbaitek azalduta bezala. Bigarren partea protagonistaren berbetan dago kontatua.

Zelakoa da protagonista?

Ez du berari buruzko ez adinik, ez izenik, ez halako daturik ematen: bere bizitza kontatzen du baina bera nor den esan barik.

Nondik sortu zitzaizun ideia hori?

Baliteke liburu edo egunkariaren batean irakurritako zerbaitetik hartu izana ideia, ez dakit... Bueltalarregi eman barik, etorri zen moduan hasi nintzen idazten.

Erraz atera zen idatzia?

Apur bat kosta zitzaidan, egia esan. Hasiarako zatia idaztea nahiko erraza egin zitzaidan, bizitza normal baten kontakizuna baita. Bigarren partean, aldiz, gehiago sakontzen da, eta gehiago kostatu zitzaidan nahi nuena lortzea. Aste bitan idatzi nuen, eta hilabetean eman nuen amaitutzat, hainbat aldaketa eginda.

Zer irakurtzea gustatzen zaizu?

Asko gustatzen zait poesia irakurtzea. Narrazio liburuak ere gustatzen zaizkit, baina istorioan ez bazara sartzen... Idatzi ere gustorago idazten dut poesia. Errazagoa egiten zait olerkiak idaztea.

Zeinen olerkiak dituzu gogoko?

Xabier Leterenak, batez ere. Betidanik gustatu izan zait bere idazkera. Daukan ukitu pesimistak beti erakarri izan nau. Gazte-erazkoak ere irakurtzen ditut. Ezer egiteko ez daukadanean, liburutegira joan eta begiratzea gustatzen zait.

Noiztik daukazu idazteko harra barruan?

Txikitatik gustatu izan zait irakurtzea. Idazten orain hiru-lau urte hasi nintzen.

Orain bazabiltza zerbait idazten?

Azterketak eta tarteko, orain ez nabil ezer idazten, baina oportretan nagoela aprobe-txatuta, ekingo diot.

Zenbateko garrantzia dauka idazteak eta irakurtzeak zure bizitzan?

Handia. Bakarrik nagoen momentu guztietan ibiltzen naiz idazteko gaiak pentsatzen. Nire bizitzan parte handia suposatzen du.

Noiz idazten duzu?

Kaletik nabilela ideia bat badaukat, etxera ailegatzen naizenean edo momentu libre bat daukadanean idazten dut. ■ I. Esteban



‘Letretatik tiraka’ blogean ipintzen ditu Ainhoa Urienek bere olerki eta idatziak irakurgai

‘www.letretaktiraka.blogspot.com’ helbidean dauka Ainhoa Urienek bere lanaren lagin bat irakurgai. 2011n igotako 25 idazlan eta aurtengo lau lan bildu ditu bertan. Olerkiak eta gogoetak argitaratzen ditu bere blogean.

Blogaren bospasei irakurlearen iruzkin jaso izan ditu: “Bartzelonan bizi den euskaldun batek mezu bidali zidan”, kontatu du Urienek, “Interneten zebilela nire bloga topatu zuela eta asko gustatu zitzaioela esan zidan”.

Datorren ikasturtean batxilergoko bigarren maila egin eta gero zer asmo daukan galdetuta, “filosofia, euskal filologia, historia...”, arlo horietako bateko ikasketak egin gura dituela erantzun du.

Bigarren aldiz aurkeztu du Ainhoa Urienek bere idatzia Euskaltzaindiaren duen Resurreccion Maria Azkue Literatura Sariketara. Idazle gazteei dago zuzendua lehiaketa, eta 150 idatzi jaso dituzte aurtun. Azkue sariketan, lehenengo saritu dute Urien, baina aurrerago Abadiño Udalak antolatzen duen literatur lehiaketan saria jasotakoa da.

Komunikabideetara bidali duen oharrean zoriondu du Abadiño Udalak Urien. Argi Abad zinegotziak esan duenez, “Abadiñoentzat poztekoa eta harro egoteko modukoa da herriko neska gazte batek euskaraz idazteko gaitasun hori izatea eta Euskaltzaindiak haren lana saritzea”.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

ATHLETIC CLUB BILBAO

MAIATZAK 25 **ERREGE KOPAKO FINALA**
20:00 saiheskia, patatak, garagardoa
22:00 Pantaila erraldoia

MAIATZAK 26 Kantuzaleen txokoa **KANTULAGUN**
13:00 Santa Ana. 15:00 Bazkaria
19:00 Aiko erromeria

EKAINAK 1 22:00 **BERRI TXARRAK**
KONTZERTUA. Sarrera: 13-17euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

www.plateruena.net

SALIR
Coliflor Circo (Italia-Francia-Chile)
Maiatzak 26 • 20:00

UN LOCO DE DESATAR
(Las paradojas de El Cósmico)
Trastada Teatro (Eibar)
Ekainak 1 • 22:00

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Goazen plazara

Eskerrik asko guztioi! Larunbata, maiatzaren 19a. Euskal herri-tar askoren bihotzetan luzaroan gogoratuko dugun eguna. Pasa den larunbatean, egun osoan zehar, milaka eta milaka izan ginen euskal preso politikoen eskubideen alde kalera atera ginen herri-tarrak. Gure herrian ere, Durangon, lagun asko batu ginen ilusioz beteriko ekimen honen inguruan *Goazen plazara* lemapean. Eta horrela egin genuen, gure herriko plazak bete genituen. Eskerrik asko! Eskerrik asko Durangoko herriari! Eskerrik asko gure aldarrikapenak plazaz plaza zabaltzea posible egin zenuten guztioi. Eskerrik asko ekimena aurrera eramatea posible egin zenu-ten guztioi; gure trikitilari lagunak, musikari, teknikari, artista, bertsolari, argazkilari, marrazkilari, laguntzaileoi... Eskerrik asko zuri, eskerrik asko bihotzez! Mila esker, gaur zortzi, ilusio, emo-zio, sentipen..., txikiena ere gure enparantzetan adierazi zenu-tenoi!

Larunbatean bizitakoa ez da azkena izango! Lanean jarraitu behar dugu eta hemendik aurrera asko izango dira elkarrekin sor-tuko ditugun ekimenak.

Durangoko Herrira mugimendua, animatu nahi zaituzte elkarrekin lanean aritzera, elkarrekin sortzera. Horregatik aste-artero izaten ditugun bilera irekietara gonbidatzen zaituztegu! Guz-tion artean lortuko dugu! Eskerrik asko bihotzez!

Durangoko Herrira Mugimendua

Sarrirekin akordatzen

Akordatzea hitzartzea zan aspaldian, baina gogoratzea be bada, eta bizkaitarrentzat itzartzea. Gogoratzen ditugunak ez dagoz alboan, baina itzartzen doguz geure akordura ekartzen ditugu-nean. Batzuk 1937ko amesgaiztoan joan ziran, beste batzuk azken 30 urteetakoetan. Bertsolariak, musikariak, filosofoak, idaz-leak... Hortik zehar; hemengook, oster, eurekin akordatzen.

Urrun joan barik, hortxe dogu Joseba Sarrionandia, guztion sinboloa litzatekeena. 2005ean idatzi nuen Berria egunkarian *Sarrirekin akordatzen* izeneko mendi ibilbidea. 2010ean Platerue-nako Zilar Astea berarekin hastea erabaki genuen, eta Memoria-ren mapa ibilbidea osatu zan. Mari Terek be ederto lagundu eus-kun orduan, testuak irakurtzen. 2012ra heldu gara eta Durangoko institutuko Ane Barcena eta Aiora Ponce ikasleek, beste hamaika pertsonaren laguntzarekin, *Joseba Sarrionandiarekin akordatzen* bideoa eskegi dabe YouTuben.

Hauxe dozue helbidea:

http://www.youtube.com/watch?v=Pihz1_5Z_5I

Gogoratzen jarraituko dogu, baina hitzartzeko garaian gagoz, duda barik.

Alberto Errazti Igartua

Denok egin dezakegu ingurumenaren alde

2010ean Gazteen Nazioarteko Konferentzia egin zen Brasi-lian eta bertan 53 herrialdeko 400 hurrek hartu zuten parte. Askotariko kulturak, hizkuntzak eta gizarteak dituzten hain-bat herrialde elkartu eta ingurumenaren aldeko ardurak eta ekintzak onartu zituzten. Horrez gain, gutun bat idatzi zuten munduko gainerako jendea gonbidatzeko, Lurra zaintzeko ardurak hartzera. Hala ere, konferentzia hau ingurumenaren alde egindako ekintzetako bat gehiago izan zen; izan ere, hori baino lehenago hainbat hitzaldi eman ziren eskola, eskual-de, estatu eta kontinente mailan.

Euskal Autonomia Erkidegoan IRAES21 sareak, eskola jasan-garrien taldeak, bere gain hartu du ekimenean parte hartzeko erronka. 2010. urtean Euskadiko Gazteen Arduren Gutuna ida-tzi zuten eta bi ikasle eta irakasle bat Brasilara joan ziren Eus-kal Autonomia Erkidegoko ordezkari. Bertan ateratako Gazte-en Arduren Gutunen balioa eta konpromisoa aldarrikatzeko asmoz IRAES 21eko ikasleen deia egin zen. Dei horren helbu-rua jendea ondorengo ardura eta ekintzekin konprometitzera animatzea da, denon ardura baita gure planeta zaintzea:

- Jendea informatzea eta arazoaz jabetzea.
- Uraren kutsadura murriztea.
- Negutegi-efektuak dituzten gasak murriztea.
- Nekazaritza jasangarria sustatzea.
- Gazteentzako ingurumenaren aldeko hezkuntza proiektuak sendotu eta lantzea.
- Eskola eta komunitateetan ekologia taldeak sortzea.
- Informazio-publizitatearen bidez kontsumo egokia sustatzea.
- Ingurumenean eragina duten energien erabilera murriztea.
- Ingurumenarekiko balio batzuk ezartzea.
- Kultura ekologikoa lantzea.

Juan Orobiogoitiako ikasleok ardura hauek betetzera gon-bidatzen zaituztegu. Egia da horietako batzuk betetzea ez dago-ela gure esku, baina denok egin dezakegu zerbait gure inguru-men arazoak konpontzeko. Juan Orobiogoitia zentroan hain-bat ekintza eraman dira aurrera ingurumena zaintzeko asmoz, baina garrantzitsuena dudarik gabe ikasleoi ingurumenaren inguruan zenbait balio ematea izan da. Horri esker ingurume-narekiko kontzientzia hartu dugu hainbat ikaslek. Gure ustez, ingurumenari laguntzeko egin dezakezen gauzarik onena zuen inguruko jendearekin ingurumenaren arazoez hitz egi-tea da, eta lehenago aipaturiko ardurak denon artean betetzen saiatzea, pauso txikiak emanez helburu handiak bete daitez-keelako.

Kerman Alonso, Paulo Da Silva, Jon Garate -
Juan Orobiogoitiako ikasle talde bat

■ Sei hankako mahaia

Idoia
Agoria
PSE-EE



Konpondu gabeko arazoa

Oraingoa bezalako krisi garaian, gero eta zailagoa da etxebizitza bat lortzea edo eskuratutakoari eus-tea. Gogora ekarri nahi ditut 2010. urteko aurrekontuetako akordio-rako egin genituen negoziatioak. Izan ere, orduan erabaki genuen lehentasuna eman behar geniel-a Udalak Faustogoi-en sei lursai-letan eta Arripausuetako lursai-lean egin behar zituen jardueri (160 etxebizitza Faustogoi-en eta 50 etxebizitza Arripausuetan). Horrenbestez, lursail horietan egin beharreko jardueren lizitazioak hurrengo hila-beetean egin ahal izango ziren, eta 2010. urtean ber-tan ekin ahal izango zitzaion babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea-ri.

Denbora luzea eman dugu lanean, EAJ-PNV tartean sar dadin, eta adostutakoa bete dezan lortze-ko. EAJ-PNV eta PP alderdiak aur-ka azaldu arren, orain dela aste-bete lortu genuen Udalak inplika-zioa erakuts zezan, hau da, kooperatiba kudeatzeko lanetan sar zedin, eta babes ofizialeko etxebizitzak (125 etxebizitza ingu-ru) esleitzeko erabili beharreko sistema zuzentzeari ekin ziezaion.

Orain, berriz, beste gai bat eztabaidatu behar dugu: kobratzea edo trukatea? EAJ-PNV alderdi-aren proposamenaren helburua hauxe da: lursailak balio duen gehiena (3 milioi euro eta erdi) pol-tsikoratzea, eta ahalik eta etxebi-zitza gutxien eraikitzea udal-alo-kairuaren erregimenean, nahiz eta oraingo krisi garaian horrela-ko etxebizitzak behar-beharrez-koak izan.

Guk, berriz, zera proposatzen dugu: lursailaren ordainketa osoa truke bidez egitea, 2010. urteko aurrekontuetarako negoziatioe-tan adostu genuen moduan. Tru-ke hori eginez gero, eraikuntza osoaren %20 udalaren jabetza izango litzateke, eta, ondorioz, alokairuko hogeitaz etxebizitza ingu-ru edukiko genituzke. Izan ere, orain arte, udal-gobernu honek konpondu gabe izan duen arazo bat dira etxebizitza horiek.

Denbora luzea eman dugu EAJk etxebizitza arloan adostutakoa betetzea lortzeko

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira. *DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO*

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2012ko maiatzaren 25a
10. urtea - 460 zk.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

@anbotokirola

KIROLAK >

Durungaldea zuri gorritz jantziko da osterera ere, Kopako finalerako

Aurtengo bigarren finala lagunartean gozatu edota sufritzeko hainbat aukera egongo da



Durungaldeko hainbat athletic zale 2009ko Errege Kopako finalean, Valentzian.



Peña Ustaritz Taldeko kideak, Europa Leagueko finalean.



Gaztetxoak Traña-Matienan.

Gaur gauean Athleticcek Errege Kopako finala jokatu du Bartzelonaren aurka. Bielsaren jokalariek bigarren finala izango dute hamabost egunean eta zaleak beste behin taldeagaz egongo dira. Asko dira sarrera barik Madrilera joan direnak finala bertatik bertara bizitzera. Durungaldean hainbat pantaila erraldoi prestatu dituzte lagunartean gozatu eta sufritzeko.

Peña Ustaritz Taldeak Traña-Matienako Vancouver tabernaren kapoaldean ipiniko du pantaila. 17:00etan aurpegiak zuri-gorritz pintatzeko aukera egongo da. Ostean, 20:00etan, The Mockers taldeak kontzertua eskainiko du. Partiduaren ondoren musikak jarraituko du eta txapliguak jaurtiko dituzte.

Peñako kideek ezingo dute Ustaritz Aldekoa-Otalaria animatu

Betis taldean dabilelako, baina badute ordezkia: "Ea partiduko gol bat Ander Iturraspek sartzen duen. Handia litzateke bere golagaz finala irabaztea".

Durangoko Plateruena kafe antzokian ere eskainiko dute finala. Europa Leagueko finalean egin zuten moduan, 20:00etatik aurrera, saiheskia eta patatak afaltzeko modua egongo da, garagardoa edo

EGITARAUA

TRAÑA-MATIENA:

- 17:00etan: aurpegia pintatzeko aukera.
- 20:00etan: The Mockers taldea.
- 24:00etan: Musikak jarraituko du

DURANGON, PLATERUENEAN:

- 20:00etan: Afaria bost euroan. 1984ko finala ikusiko dute.
- Athleticen 50 kamiseta zotz egongo dituzte.

freskagarriagaz, 5 euroren truke. Jakinarazi dutenez, Athleticen 50 kamiseta ere zozkatuko dituzte.

Beste herri batzuetan ere ipiniko dituzte pantailak. Elorrion udaletxe pareko plazan batuko dira athletic zaleak. Lurretan Ibai Ondo tabernaren aurrean ipiniko dute pantaila.

Motorrean Madrilera

Gaur goizean 15 bat athletic zale motorrez Madrilera abiatu dira Mañaritik. Athleticen kamisetak ipini dituzte eta esan dutenez motorrak ere kolore zuri gorritz jantzi dituzte. ■ J. Derteano

Jon Asuetak urrezko domina belodromoan

Tafallako belodromoan jokatu-tako Espainiako txapelketan, Jon Asuetak domina bi irabazi ditu kadete mailan. Elorrio Txirrindulari Elkarte-Gaursa Renault taldeko txirrindulariak urrezko domina lortu du abiadura modalitatean eta brontzekoa scratch-ean, eta asteburu borobila osatu du.


Bestalde, domeka honean eskola kiroleko Euskadiko Kirol Jokoa lehiatuko dira eta hiru elorriarrek parte hartuko dute: Aroa Gorostizak lehen urteko haur-kategorian, eta Gontzal Garciak eta Javier Humanesek bigarren mailako haur-kategorian. ■ J. D.

680 kilora arteko sokatira finala bihar lurretan

Lur gaineko sokatira txapelketako finala hartuko du lurretak zapatuan, 17:30ean, Eliza atzeko landan. Abadiño sokatira taldea ez da ariko, lur gaineko txapelketan ez dutelako parte hartzen. Hiru herritako sei talde ibiliko dira lehiatzen: Laukizko Gaztedi A eta Gaztedi B, Erandioko Goierri A eta Goierri B, eta Mutriku. Mutriku sokatira taldea da hain zuzen biharko ekitaldiaren antolatzailea.

Orain arteko ibilbideari kasu eginez gero, finala irabazteko favoritu nagusia Goierri A da. Mutriku eta Gaztediren artean lehia gogorra egon daiteke bigarren posturako. ■ J.D.

Madrilera goaz! >



Xabier Zabala A.
Kiniela: 2-1

"Taldeen denboraldian egin duten jokoa erakusten badute partiduko ikusgarria espero dut, gol aukera askokoa. Athleticen bere buruan sinestu behar du eta disfrutatzen irten. Horrela gauzak ondo joango dira. Bielsak dioen moduan: Athletic Karajo!".



Asier Astola
Josu Meabe
Kiniela: 2-1

"Aurten sarritan erakutsi dugun jokoa egiten badugu finala guretzako izango da, seguru. Gakoa guregan dago. Berdin da parean nor dagoen, Bartzelona edo Numantzia. Guk geurea ematen badugu Errege Kopako finala irabazteko aukerak izango ditugu".



Arrate Igarza
Kiniela: 2-1

"Gaur Madrilan bazkaldu eta gero Athletic Hirira, karpata, joango gara, anbientera! Nik uste dut irabaztea ez dela ezinezkoa. Bartzelona talde oso ona da, baina badago irabazteko aukera. Athleticen ondo jokatzen badu, irabazi ahaliko du".



Juanlu Areitio
Goiuri Sopolana
Kiniela: 1-0

"2009an Valentzian egon ginen Errege Kopako finala ikusten. Orduan bagenekien oso final zaila genuela, baina aurten irabazteko aukera gehiago ditugula esango nuke. Sekula ez da jakiten, baina baditugu esperantzak domekan Bilbon gabarra ikusteko".

Herbehereetan hirugarren proba Igor Urientzat

Igor Urien pilotuak Europako Radical Masters txapelketako hirugarren proban lehiatuko da, zapatuan eta astelehenean, Herbehereetako Zandvoort zirkuituan. Orain arte ez da sekula zirkuitu horretan aritu, baina "konfiantzagaz" doala adierazi du: "Ez da erraza izango, baina motibatuta noa. Badakit arerioek ez didatela erraz ipiniko, beraz pazientzia izan beharko dut eta autoko set-up egokiena bilatu".

Txapelketako lasterketa bi lehiatu ditu orain arte. Silbertonen jokatu-tako aurrenekoan hirugarren geratu eta podiumera izan zen. ■ J. D.

Maila gorenera itzuli da Vulcano futbol taldea

Traktore gainean ospatu zuen igoera Otxandioko futbol taldeak; duela urte bi galdutako mailan ariko dira datorren denboraldian



Vulcano futbol taldeko jokalariek, Pasquali traktore gainera igota igoera ospatzen.

Otxandioko Vulcano futbol taldeak Maila gorenerako txartela lortu zuen joan zen zapatuan. Igoera faseko azken jardunaldian derrigor irabazi behar zuten etxean eta erraz menderatu zuten Rioja Alavesa taldea (6-0). Ostean, igoera batek merezi duen ospakizuna zabaldu zuten herrira.

Pasquali traktor baten gainean egin zuten futbol zelaitik herrigunerako bidea. Vulcano iturrian geratu eta taldeko kamisetak bertan ipini zuten, eskain-

"Hiru-lau kenduta beste denok herrikoak gara. Oso pozik gaude"

tza modura. Txapliguak ere ez ziren falta izan. Hortik aurrera, gaua luzatu egin zitzaie, Javi Axpe taldeko jokalaria eta kapitainak onartu duenez.

Orain urte bi Maila gorenetik Erregional mailara jaitsi zen Vulcano. Gorenean zortzi urte segi-

dan egin ostean, kolpe gogorra izan zen. Hala ere, urte biren buruan berriro bueltatu dira. Iaz igoera fasean geratu ziren baina aurtengoa ez da taldeak lortzen duen lehenengo igoera, baina bai meritu gehien duena: "Hiru-lau jokalaria kenduta beste denok herrikoak gara. Horregatik oso pozik gaude. Datorren denboraldian filosofia berari eutsiko diogu, nahiz eta badakigun seguruenik sufritzea egokitu zaitzakeela". ■ J. D.

ADITUAREN TXOKOA

Gotzon Gomez
Errugbi entrenatzailea



Harrobiaren fruituak

Harrobiei buruz jardungo dut gaur eta, zehatz esanda, Hernani Rugby Elkarteko harrobiari buruz. Sarritan entzun ditugu *cartera* edo *cantera* hitzen inguruko eztabaidak, zein den biderik onena, egokiena, arrakastatsuenena... Baina nire asmoa Hernani Rugby Elkartek arlo honetan egindako lan eskerga azpimarratzea da.

Rafak, Joxe Elosegik (haiek aipatzen ditut ezagutzen ditudalako) eta atzetik dituzten beste hainbatek betidanik argi izan dute zein zen bidea eta azken urteetan beheko mailak zaindu, babestu eta batez ere indartu egin dituzte. Eskola eta ikastoletan errugbiaren 'pozoia' zabalduz, eta emaitzak hor daude: datorren urtean Ohorezko mailan ariko dira.

Nire azken urteetan, lehia gogorrean aritzen ginen hernaniarrek. Buruan ditut oraindik hainbat jokalaria: Sarasola, Boli, Mitxel, Otaño, Gurutz... Gure moduan, etxean hazi eta hezitakoak. Batzuek oraindik jarraitzen dute zelai barruan, baina atzetik gazteen belaunaldi ederra etorri zaie: Genua, Garmendiatarrak eta abar, eta aurtengoa azken urteetan merezitako saria lortu dute.

Horretarako lan itzela burutu behar izan dute, ordu mordoak sartu, baina beti ere etxeko jendearekin eta jendearentzat. Bost edo sei urterekin errugbian hasitako jokalariekin oinarritzkoena landuz, kluba eta errugbiaren filosofia zabalduz, beheko maila guztietatik pasa izan direnekin jokatzeko modu amankomuna landuz, hori da niretzat harrobia lantzea.

Azkenean ametsa lortu dute, bat izan ezik urteko partida guztiak irabazita; joko ona eta bizia erakutsiz. Gu ere Durangon bide horretatik gabiltza, konbentziturik gaudelako errugbia lantzeko eta zabalteko bide bakarra dela. Zorionak Hernani, merezi duzue-eta!

Andoni Alvear eta Ewan Roy Bizkaiko txapelkun kimu mailan

Durangoko pilotari gazteek 18-11 menderatu zuten Orozkoko bikotea, Getxon jokaturako finalean. Orain, Euskal Herriko txapelketa jokatu dute. Zapatuan, 11:00etan, Gipuzkoa izango dute arerio Eibarko Astelenan. Finalerdietan gipuzkoarrak dira faborito, baina durangarrek badituzte aukerak. Irabaziz gero, Araba aurkituko lukete finalean. ■ J. D.



Waltary lanerako zegoen eta Antxia sorbaldatik justuan

Agusti Ibañez 'Waltary' eta Iker Gordonek irabazi dute San Trokaz Trinkete Txapelketa. Aurrelari izanda atzean jokaturako ere, Waltaryk zuloak bete zituen eta partiduari eutsi zion. Bikote galtzailean Ander Antxiak ezin izan zuen bererik eman, eskuin sorbaldako lesiotik irten berria zelako; Gandiaga gogotik saiatu zen, baina alperrik. Gazteetan eta promesetan Garcia-Urbe eta Zilaurren-Gomez bikoteak izan ziren txapelkunak. ■ J. D.

Mailari eutsi dio Tabirako Baquek Santurtziri eta Zarautzi esker

Errebotez bada ere, Tabirako Baquek Espainiako Lehen mailari eutsi dio saskibaloian. Durangoko taldea jada aukera barik zegoen bere mailan, baina Santurtzi eta Leioak Tabirako Baquek mailaz igo direnez, karanbola batzuen ondorioz, Tabirako Baque ez da jaitsiko.

Bi taldeetako bat igota nahiko zen mailari eusteko. Laster EBA mailan izena emango du Santurtzik eta beharrezko baimenak aurkeztu eta Federazioak onartzen dituenean lortuko du Tabirakok ofizialki mailari eustea.

Santurtzi eta Zarautz taldeak igo zirenez, Tabirako ez da jaitsiko

Bestalde, amaitu dute denboraldia Maila erregional bereziko Anbotopekok eta Tabirako Baqueren bigarren taldeak. Talde biak *final four* erako sailkatu dira eta Tabirakok bigarren amaitu du, finalerdietan Mungia kanporatu ostean. Anbotopekok, berriz, laugarren amaitu du azkenengo fasea. ■ J. D.

Agenda

PILOTA

PETERREN OROIMENEZKO III TXAPELKETA (finalerdia)

- **Azkarai - Gardoki / Etxebarria - Bidaburu - Agirrezabal - Zabala / Zugadi - Ajuria**

Barikuan, 19:30ean, Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan.

- **Gutierrez - Garaizabal / Agnaga - Lopez - Aranburu - Aldape / Alberdi - Varela**

Ekainaren 1ean, 19:30ean, Durangoko Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuan.

ARETO FUTBOLA

LEHENENGO ERREGIONALA

Dantxari - Erromotarrak

Zapatuan, 17:00etan, Iurretako Lanbide Heziketa Institutuan

MALLABIKO ARETO FUTBOL MARATOIOA

Mallabia futbol taldeak jakinarazi duenez, astebetetz atzeratu egin dute areto futbol maratoia. **Ekainaren 15etik 17ra** egingo dute.

ESKOLA KIROLA

UMEENTZAKO DUATLOIA ELORRION

Amaiera jaia Elorrioko Lourdesko Ama Ikastetxean. 11:00etatik 11:30era, eta adin tartearen arabera banatuta ariko dira.



Dukienna-BERRIZ
638 127 060

UDALEKUAK 2012

ASTEKO EGONALDIA OSTATU BARIK

- Aktibitateak egun osoan zehar
 - Katering zerbitzua barne: bazkaria eta otartekoa
 - Astelehenetik ostiralera 09:30etik 18:00etara
 - Zaldiketa klase dibertigarriak
 - Irakasle tituluak
 - Asteko prezioa: 300 euro
- * Beste baldintza edo aukeretarako Dukiennara deitu



*Paraje ezin hobea
umeez primeran pasatzeko!
Etorri eta informatu!*

AISIALDIA >

gazte gara gazte!

Bortz taldeko gazteek bigarren urtez segidan irabazi dute Zugan Ni lehiaketa



Gazteak antzerkiaren mundura erakartzeko Markeliñek antolatu duen Zugan Ni lehiaketa irabazi du Bortz taldeak. *Burdinezko Kutxa* lanaren bidez krisiaren gaia jorratu dute. Lapurren azalean sartu eta krisia gizarteko txoko denetara heldu dela erakutsi dute: lapurrei ez zaie lapurtzeko ezer geratzen.

Argazkiko gazteek bigarren urtez jarraian lortu dute Zugan Ni antzerki-lehiaketa irabaztea. Gogo eta ilusio handiz sortutako lana saritu izana pozgarria dela diote, baina eurek benetan estimatzen duten saria beste bat da: sormen lanean partekatutako dituzten uneak eta sortutakoa jendaurrean erakusteko izan duten aukera, besteak beste. Beharbada, hortxe dago garaipen-

naren sekretua. Beharbada ilusioz bizi dutena eszenatokian naturaltasunez transmitzeko ahalmena izan da Ganix Bereinkua (Durango, 13 urte), Egoitz Zabala (Durango, 15 urte), Leire Boveda (Durango, 15 urte), Olatz Agirre (Iurreta, 15 urte) eta Itsasne Intxaurrearen (Durango, 15 urte) arrakastaren sekretua. Gazteak Irati Iturrateren gidaritzapean ibili dira.

Aurten *Burdinazko Kutxa* izeneko lana sortu eta aurkeztu dute lehiaketara. Antzezlanak krisiaren gaia jorratzen du, ikuspuntu bitxi batetik. Bost lapurren azal azpian sartzen dira gazteak. Jendeak gero eta ondasun gutxiago ditu krisiaren eraginez eta, ondorioz, lapurrak zer lapurturik ez dutela geratzen dira. Zer egin? Ba, amets egiten dute: "Imaginazioaren bidez toki imaginario eta hobe batzuetara bidaiatzen dute", azaldu du Olatz Agirrek.

Gainera, zeharka bada ere, inmigrazioaren gaia azaleratzen du antzezlanak: "Munduko hainbat txokotara bidaiatzen dute eta toki berrietara heltzean zelan sentitzen diren azaltzen dugu".

Aurtengo antzezlanak ez du testu askorik. Plastikotasuna dabilte gauzak adierazteko: objektuak, keinuak... Ikusiz ulertzen den lengoia.

Sormen prozesuan, bat-batekotasuna izan da gakoetako bat. Gidoi eta ildo orokor batzuk jarrai-

tu dituzte, baina itxita egon barik, lana aberastu ahal zuten ekarpenei atea zabalik: "Jokoen bidez ideiak bururatzen zitzaizkigun, uneoro irten zitekeen antzezlanera eramateko zeozer. Entseguak oso estimulagarriak izan dira alde horretatik", dio Egoitz Zabalak.

Aktoreak epaile

Aurten gazteek eurek epaile lana ere egin dute. Besteen lana juzgatzeko eginkizuna ez zaie askorik gustatu, baina aurkeztu diren lanen maila handia azpimarratu dute: "Igorrekoek aurkeztutako obra asko gustatu zaigu. Publikoarekin hartueman handia sortu dute eta dibertigarria izan da", gogoratu du Leire Bovedak.

Iaz *Brionia* lanagaz irabazi zuten lehiaketa. *Brionia* izeneko alegiazko paradisu batera zihozten bost laguneren tren bidaia kontatu zuten. Trenak istripua izaten du ibilbidearen erdian eta orduan *Brionia*ra joan ez joan eztabaidatzen eta hausnartzen hasten dira.

"Imaginazioaren bidez toki imaginarioetara bidaiatzen dute"

"Sormenaren aldetik entseguak oso estimulagarriak izan dira"

Iaz *Brionia* izeneko lanagaz irabazi zuten Zugan Ni lehiaketa



laguntzaileak



Kalebarria biziberritzeko erronkagaz zabalduko dute New Step taberna berria

Gaur inauguratuko dute taberna berriztua Durangoko alde zaharrean; 'Pausu Berria' izena ipini diote



ORDUTEGIA

ASTEAN ZEHAR

08:30^{etatik}
02:30^{era}

ASTEBURUETAN

04:30^{era arte}

ZERBITZUAK

- WiFia

- Gosari bereziak Ardo eta garagardo karta zabalak, Happy Hour, eta koktelak.

- Ikasleentzako deskontuak

Amaia Carrasco, Naiade Altuna eta Koldo eta Axular Casado anaiak dira Kalebarriako taberna berria martxan ipini duten bazkideak: New Step (Pausu Berria, ingelesez).

Familiaren Urrats tabernan hamarkada batean lanean jardundakoak dira Casado anaiak. Koldo Casadok azaldu duenez, taberna berria zabaltzeko ideia honek sortu zitzaion: "Gure kontura zeozer egitea gura genuelako". Anaia biei, Amaia Carrasco eta Naiade Altuna ere batu zaizkie, New Step zabaltzeko pausua ematera. Aurretik telebistan eta publizitate arloan jardundakoa da Carrasco, eta Londresen enpresa kudeaketa ikasi zuen Altunak.

Urte berriarekin hartu zuten erronka berria, Amaia Carrascok azaldu duenez. Hilabete bi eta erdi inguru dira taberna berritzeko proiektua martxan ipini zutela, eta hilabete eman dute obre-

tan. New Step gaur inauguratuko dute, taberna zabalduko dutela "ospatzeko jaia".

Athleticen partidua ere eman-go dute tabernan, baina egitarau zabalagoa osatu dute tabernaren lehenengo egunerako. EK Ramirez eta Iker Cifuentes disko jartzailen emanaldia antolatu dute, adibidez. Inauguraziora doazenei luntxa eskainiko diete, eta dj-ek girotuko dute hortik aurrerako; Athleticen partiduaren ostean ere, dantzarako musika elektronikoa eskainiko dute.

Azaldu dutenez, orain arte gaueko girora zuzenduriko lokala "eguneko erreferentzia" ere bilakatzea gura dute lau lagun hauek. Horretarako, hainbat ekimen burutzeko egitasmoa daukate. Goizeangoiz, 08:30ean hasiko dira gosariak ematen, eta beste hainbat proiektu erakargarri ere badauzkate buruan.

Hilabete bi eta erdi inguru dira taberna berritzeko proiektua martxan ipini zutela

Inauguraziorako luntxa eskainiko dute, eta dj-ek musika ipiniko dute

"Beste aire bat"

New Step Durangoko Kalebarriari "beste aire bat ematera dator", Amaia Carrascoren berbetan; Kalebarria biziberritzen laguntzera. Orain arte Goienkaleko tabernak ixtean bete izan da inguru hori jendez. "Guk goizetik hasita eta gauean hasieratik erakarri gura dugu jendea".

Ikasleentzako deskontuak eskainiko dituztela aurreratu dute, esaterako, eta New Step taberna eguerdiko txikiteroen geldialdi ere bilakatu gura dutela.

Bestalde, Durangoko kale horretan liburutegiaren inguruan mugitzen den jendearen beharretara moldatuko dute goizetik tabernaren zerbitzua. Besteak beste, WiFia ere eskainiko dute.

Gauetz, New Step tabernako espezialitatea koktelak izatea gura dutela azaldu digu Koldok: moji-toak eta bestelako koktelak eskai-

niko dituzte. *Happy hour*-ak burutuko dituzte: une zehatzetan edariak merkeago eskaini, alegia. Gainera, ardo eta garagardo karta bereziak eskainiko dituzte. Asteazkenean 02:30era arte edukiko dute taberna zabalik, eta 04:30era arte asteburuetan.

Gaua girotzeko, dj-en emanaldiak, karaokea eta bakarrizketak antolatu gura dituzte etorkizunean New Step-en. Ezkontzak, agurrak eta bestelako ekitaldiak egiteko ere eskainiko dute lokala.

Barrakolana eta kudeaketa lau bazkideen artean banatuko dute: Casado anaiak jardungo dute hasieran asteazkenean barran, eta kudeaketa kontuetan Naiade Altuna eta Amaia Carrascok. Aurrerantzean, besteak beste, jesarrita giro lasaian egoteko sofak ere ipintzeko asmoa dutela aurreratu du Altunak: "Gutxinaka egingo ditugu hobekuntzak".

NewStep

INAUGURAZIOA
maiatzaren 25ean
20:30ean

Kalebarria 17 -Durango • Tel.: 94 603 03 88



Zatoz gurera eta gozatu Athleticekin errege kopako finalean!

AGENDA >

>ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdiaren aurretik.



Ekainaren 1ean,
Elorrioko Arriola antzokian

GURE BIDE GALDUAK

Dejabu antzerki taldeak azaltzen duenez, *Gure bide galduak* "errealismo magikoz zipriztindutako ikuskizuna da". Bost antzezle eta gitarraren zuzeneko soinua dira ikuskizunaren osagaiak. Franco hil osteko Euskal Herrian kokatua dago ikuskizuna, eta utopiari, ametsi eta desenkontuari buruz dihardu.



Asteburuan, Durangon eta Elorrian

SALIR

Maiatzaren 26an Durangoko San Agustin kulturgunean, eta maiatzaren 27an Elorrioko Arriolan eskainiko dute *Salir*. Iaz Leioako Umore Azokan ikuskizun onenaren saria jaso zuen obra honek. Zirku garaikideko obra da, Italia, Frantzia eta Txileko sortzaileena. Zirkuagaz batera antzerkia uzartzeko du Coliflor Circo taldeak, eta Hugo Ferrón da zuzendaria.

ANTZERKIA

BERRIZ

>> Maiatzaren 25ean, Ganso & Cia taldearen *Medio Pelo* kale antzerki emanaldia, 18:30ean, Olakueta plazan.

DURANGO

>> Maiatzaren 26an, Coliflor Circo teatro taldearen *Salir*, 20:00etan, San Agustin kulturgunean.

>> Ekainaren 1ean, Trastada Teatro taldearen *Un loco de desatar (las paradojas de El Cósmico)*, 23:00etan, San Agustin kulturgunean.

ELORRIO

>> Maiatzaren 27an, Coliflor Circo teatro taldearen *Salir*, 19:00etan, Arriolan.

>> Ekainaren 1ean, Dejabu Panpin Laborategia taldearen *Gure bide galduak*, 22:00etan, Arriola kulturgunean.

BERBALDIA

ELORRIO

>> Maiatzaren 31n, *Desazkundera: bizitza maila vs. kontsumo maila?*, 19:30ean, Iturri kultur etxean. Pedro Ugarte Desazkundera mugimenduko kidea, Kainabera GKEak antolatutako hitzaldi zikloan.

BERTSOAK

DURANGO

>> Maiatzaren 31n, Oihana Bartra, Jon Maia eta Igor Elortza bertsolarien *bertso trama*,

20:00etan, Plateruenean. DF Bertsozale.

DANTZA

DURANGO

>> Maiatzaren 26an, AIKO erromeria, 19:00etan, Plateruenean.

ERAKUSKETA

BERRIZ

>> Ekainaren 1era arte, Zeramika tailerreko lanen erakusketa, 18:30etik 20:30era, Kultur Etxean.

DURANGO

>> Maiatzaren 25ean, eskolarteko pintura lehiaketaren erakusketa (Euskal Astea), Ezkurdiko erakusketa aretoan.

>> Maiatzaren 27ra arte, Berni Gonzalez eta Natalia Pedrero artista gazteen *¿De dónde venimos? ¿A dónde vamos?*, Durangoko Arte eta Historia Museon.

>> Ekainaren 7ra arte, *10 gazte afrikarren begiradak Durangon*. Kulturarteko Rebelart tailerrean landutako lanak, San Agustin kulturgunean, egunero, 19:00etatik 21:00etara.

JOKOAK

DURANGO

>> Maiatzaren 28an, Umeen euskal joku tradizionalak, 09:45ean hasita, Landako kiroldegian. Durangoko Euskal Astearen egitarauaren barruko ekitaldia.

KONTALARIA

BERRIZ

>> Maiatzaren 26an, Eñaut Gorbearen *Hala bazan edo ez bazan*, 12:15ean, Kultur Etxean.

DURANGO

>> Maiatzaren 26an, Amaia Arriaranen saioa, 3 eta 5 urtekoentzat (12:00etan), eta 6 urtetik gorakoentzat (12:30etan), Liburutegian.

IURRETA

>> Maiatzaren 25ean, Virginia Imazen umeentzako saioak: hiru eta lau urtekoentzat (17:30); eta bost urtetik gorakoentzat (18:00). Marisol Abreuren helduentzako saioa, 20:00etan.

MUSIKA

BERRIZ

>> Ekainaren 1ean, Berrizko musika eskolako XXIV. Musika jaialdia, 21:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

>> Maiatzaren 25ean, Organo eta soprano kontzertua, 20:30ean, Jesuiten elizan.

>> Maiatzaren 26an, Kantulagun, 13:30ean, Plateruenean.

>> Ekainaren 1ean, Berri Txarrak, 22:00etan, Plateruenean.

TAILERRA

ABADIÑO

>> Maiatzaren 30ean, Berbalagunek antolatutako *erlaxazio tailerra*,

Traña-Matienako Errota kultur etxean. Izen ematea: 639 400 786.

ZINEMA

DURANGO

>> Ekainaren 2an, Jon Maiaren *Gazta zati bat*, 20:00etan, Plateruenean.

ZINEMA

DURANGO

Zugara

Men in black 3 3D

Zuzendaria: Barry Sonnenfeld
barikua 25: 19:00/22:00
zapateria 26: 17:00/19:45/22:30
domeka 27: 17:00/20:00
astelehena 28: 19:00/22:00
martitzena 29: 20:00

Zineforuma

Martha Marcy May Marlene

Zuzendaria: Sean Durkin
eguna 31: 20:30

ELORRIO

Arriola

Los vengadores

Zuzendaria: Joss Whedon
zapateria 26: 22:30
domeka 27: 20:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

Grupo 7

Zuzendaria: Alberto Rodríguez
domeka 27: 20:00
astelehena 28: 20:00

MATRIKULA-EPEA ZABALIK EKAINAREN 1ETIK 25ERA

4 ETA... 100 URTE BITARTEKOA
BAZARA ETA MUSIKA IKASI ETA
GOZATZEKO GOGORIK BADUZU,
ERDU MUSIKA ESKOLARA

2012-2013
IKASTURTEA

MONTEVIDEO 7 • TEL.: 94 603 00 35
BERTZILLA@DURANGO-UDALA.NET

Matrikulatzeko lekua: Musika Eskolako Idazkaritza
Ordutegia: Astelehenetik barikua 11:30-15:30 eta 16:00-19:00
MATRIKULA ONLINE EGITEKO AUKERA: www.durangomusika.net

Bartolome Ertzilla
Kontserbatorioa eta
Musika Eskola
DURANGOKO URJALA

Escuela de Música
y Conservatorio
Bartolomé Ertzilla
AYTO. de DURANGO

ZORION AGURRAK >

zorionak@anboto.org • Eguazteneko arratsaldeko 14:00ak arteko epea



Maiatzaren 28an, argazkiko mutil guapo honek 5 urte beteko ditu. Zorionak **Unai!** Musu handi bat Elene eta familia osoaren partez!



Zorionak **Hibai!** Abadiñoako mister paella 2012! Maiatzaren 24an ondo ospatuko zenuelakoan... Besarkada bat Abañoako nesken partez!



Maiatzaren 30ean 11 urte beteko ditu mutil kirolari honek! Zorionak **Aitor!** Musu potolo pila eta besarkada handi bat etxeko guztien partez!



Maiatzaren 22an **Julenek** 23 urte bete zituen. Zorionak eta musu handi-handi bat Matienako familiaren partez!



Maiatzaren 6an jaio zen **Arai Buruaga Fernandez**. Zorionak Nerea, Ibai eta Izaneri! Osasunez eta maitasunez hasi denon partez!



Julen bere lehengusuaren ezkontzan zegoen, eta haren sidecar-ean joan zen Zumaiara arte! Han geratu zen neskarik jatorrenagaz, baina ekarriozu sidecar hori lehengusuari, itxaroten dago-eta! Zorionak familiaren partez!



Josek **Mariangeles**: ezkontuta daroagu hainbeste urte, eta urtetik urtera gehiago maite zaitut. Jakin izan banu, lehenengo jaunartzean ezkonduko nintzen zugaz! Zorionak zure seme-alaben, iloben eta gainontzekoen partez.



Bihar, maiatzaren 26an, **Jose** eta **Benitak** ezkondu zirela 56 urte ospatzen dituzte. Zorionak, musu pila eta besarkada handi bat etxeko guztien partez!



Asturiasko bidaian ederto pasatu zuten Elorrioko Berriotxo jubilatuen elkarteko kideek. Argazki honetan Covadongara egindako bisitan ikusi ditzakegu. Etxera heldu, eta hurrengo bisitarako prest!



Ekainaren 8an 43 urte izango dira Elorrioko Eleizalde futbol zelaian jokatu genuen partidutik. Gaur da azkenengo eguna apuntatzeko, ekainaren 9an edukiko dugun bazkarira. 12:30ean elkartuko gara, Parra tabernan. Ordura arte ongi izan eta animatu! Telefonoa: 943 08 14 46 Bego.



Albertok **Beatriz**: barrea lasaigarria da, albo-kalterik bakoa. Segitu horrela urte askoan, errezetarik ez eskatzeko! Ardoak gazta baino gehiago maite zaitut! Zorionak familiaren partez!



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dugu. Bidalitako mezuagaz batera kontakturako datuak bialdu.

BOTIKAK >

- Barikua, 25**
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
09:00-22:00
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
- Zapatua, 26**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (J.A. Abasolo 2 - Durango)
09:00-13:30
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
• Campillo (Montebideo 24 - Durango)
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
• Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)
• Jaio-Olabarrieta (Erreka 6 - Elorrio)
• Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
09:00-14:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
- Domeka, 27**
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)
09:00-22:00
• Larrañaga-Balentiaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
- Astelehena, 28**
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
- Martitzena, 29**
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
- Eguaztena, 30**
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Trañabarren 15 - Abadiño)
- Eguena, 31**
09:00-09:00
• Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK >

- SOS Deiak**112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
- GARRAIOAK**
- Euskotren902 54 32 10
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto.....945 28 64 66
- TAXIAK**
- Abadiño94 681 44 70
Matiena606 45 99 88
Durango Geltokia94 681 10 01
Elorrio Geltokia.....94 682 00 40
J.L. Uriarte670 40 20 02
I. Estebez670 67 82 73
M Galeano670 40 93 30
lurreta94 620 15 65
Taxi auzunea.....688 61 86 90
- UDALAK**
- Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz.....94 682 45 84
Durango.....94 603 00 00

- Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
lurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
- UDALZAINGOA**
- Abadiño94 621 55 33
Berriz.....94 682 40 36
Durango.....94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
lurreta94 620 08 88

EGURALDIA >

- 17 **28°** BARIKUA ☁
12 **19°** ZAPATUA ☁
1 **23°** DOMEKA ☁
12 **22°** ASTELEHENA ☁
15 **26°** MARTITZENA ☁

AZOKA-BASERRITIK PLAZARA >



Abadiño (Traña-Matiena) -
Eguaztenetan 10:00etatik aurrera
Durango - Zapatu goizetan
Zornotza - Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga..... 0,80 euro
Porruak..... 1,80 euro/tx
Kalabaza..... 2,20 euro/kg
Azenarioak..... 1,50 euro/tx
Azalgak..... 2 euro/kg
Bruselazak..... 3 euro/kg
Espinakak..... 1,50 euro/tx
Indabak..... 15 euro/kg
Idiazabal gazta.....16,50 e/kg
Espeltazko ogia..... 3,60 euro



"Analogikoagaz gaitzagoa da argazki on bat ateratzea"

Iurretan ospatzen diren jai eta ekitaldi gehienetara hurreratzen da Iñaki Irazabal 'Kiña'; argazki makina ez du inoiz etxean ahazten

Iurretako Jauregi Etxekoa da Iñaki Irazabal. Bere sorterrria Durangogaz lotzen duen zubiko eraikin zaharrekoa. Bertatik ikusi du herria eraldatzen. Bere argazki-artxiboan ere badauka herriaren eta biztanleen historiaren zati bat. Aspalditik argazkilari afizioz, biltegi batean dabil ofizioz.

Zelan afizionatu zinen argazkigintzara?

Etxean argazki-makina bat agertu zen, istorio arraro batez ailegatu. Hamalau bat urtegar aitak utzi egin zidan argazki batzuk ateratzeko. Gero, Alpino Tabirak sanfaustotan-eta egiten zituen rally fotografikoetara joaten hasi ginen koadrilako batzuk. Ez neukan makina propiorik orduan, eta lehengusuak utzitako bategaz joaten nintzen. Halantxik, apurka-apurka hasi nintzen.

Zelako kamera izan zen erosi zenuen lehenengoa?

Ez naiz akordatzen nondik erosi nuen, kamera txiki eta normal bat zen. Orduan kamerak karuak ziren. Gero, mendira asko joaten hasita, beste bat erosi nuen. Erretratuak baino merkeagoak ziren diapositibak. Olympus markakoa zen. Ondo ateratzeko ahalegina egiten genuen, errebelatuak-eta ez zirelako orain lako merkeak. Gerora, Andorrraraino ere joan nintzen makina bat erostera. Gaur egun zortzi bat dauzkat etxean.

Zelako argazkiak gustatzen zaizkizu?

Mendikoak pilo bat dauzkat. Alpeetara eta Pirinioetara egindako bidaietan ateratakoak, adibidez. Iurretako jaietakoak eta ezpata-dantzakoak, paisajeak... Jendeagaz, sorpresaz harrapatutakoak izaten dira onenak. Esaterako, Tunisian oporretan egon nintzeanean segidan mordo ateratzen nituen. Gero hotelera heldu etaigoal 30etik batek balio zuen.

Iurretan, jai-giroko argazkilaria zara.

Karnabaletakoak pilo bat dauzkat!

Sanmigelak, sanjuanak, Goiuria, Oromiño edo Orozketako jaiak... Herri barruan egiten diren ekin-tzak ere bai.

Etxean artxibo galanta edukiko duzu...

5.000 argazkitik gora edukiko ditut, gutxi gorabehera. Ordenagailuan dauzkat gehienak. Zaharrak, digitalera pasatzen nabil apurka-apurka. Baina kontu geldoa da hori. Diapositibek, denboragaz kolorea galdu eta horitu egiten dira.

Argazki bitxi bat, urteotan ateraduzuna?

Iurretan zuri-beltzeko rally bat egon zenekoa. Argazki bategaz premio berezia irabazi nuen. Beste barik egindako bat izan zen: negatiboa ondo aseguratzeko lurrera begira ateratu nuen lehenengo argazkia. Montoian, kros-sekoak arineketan iritzean izan zen. Korrikalariak eguzkiak jotzen zituen atzetik, eta euren gerizpa agertzen zen lurrean.

Eta estimu berezia diozunen bat?

Etxean estimu handiko argazki bat daukat, baina ez da nik ateratakoa. Aitaren baserriko kamaran topatu nuen nire aitite-amamen ezkontzako argazki original bat.

Analogikoa ala digitala?

Desberdinak dira. Digitalak duen abantaila da ordenagailuan jokatuz dezakezula: argitu, ilundu... Analogikoan ere gero laboratoriorian tratatu ahal ziren, baina kostatzen zen. Nik uste gaitzagoa dela analogikoagaz argazki on bat ateratzea digitalagaz baino. Analogikoagaz maniobrarako tarte gutxiago daukazu.

Margotzen ere ibiltzen zara. Era-kusketak ipini izan dituzu.

Egongela koadroz eta margoz beterik daukat. Betiko afizioa da. Horrelako idea bat egiten hastean, denbora konturatu barik pasatzen zait.

Zuen etxea historikoa da Iurretan.

Montoian geratzen den etxe zahar bakarra da. Gogoratzen ditut goiko pisua egiteko obrak, alboan udaletxea zegoela... Kasko txiki bat zen guztia. Kainopea ere gogoan daukat. Hor behean dagoen lurpeko zubi bat da; orain itxita dago. 50 urtetik gorako guztiok han ikasi genuen erretzen! (barrez)

Iñaki Irazabal 'Kiña' •

56 urteko iurretarra. Argazkilaritzara zaletua.



Gotzone Barandika
EHUko irakaslea



Murrizketak

Krisia dela-eta, gure agintariak betikoa egin dute: hezkuntzan eta osasunean egin murrizketa ekonomiko handienak. Neurri hauek eragina dute zerbitzu publikoak erabiltzen dituzten herritar guztiengan: herritar gehienengan, alegia. Gainera, zerbitzu publiko horietako langileok sufritzen ditugu neurri horiek bai herritar modura eta bai langile modura ere, soldata jaitsi digutelako eta lan-ordu gehiago eskatzen dizkigutelako. Bestalde, egoera larriagoan daudenek zorte handia daukagula diote, lanpostua galdu ez baitugu. Inguruan dagoenari erreparatu, hala pentsatu beharko dugu.

EHUn inbertitzen den euro bakoitza gizartera bueltatzen da bi euro bilakatuta

Esandakoa esanda ere, nire asmoa ez da kexatzea baizik eta azpimarratzea gure politikariek ez daukatela ahalmen handirik epe luzerako neurriak hartzeko. Lau urteko legislaturak direla-eta, agintarien ikusmena gutxi luzatzen da denboran. Gainera, haien helburua botoak lortzea denez, herritarren aburuak erabiltzen dituzte. Horretan bai dira profesionalak. Esaterako, hainbat etorkini doako osasun-zerbitzua kenduko dietela plazaratu dute. Neurri populista da, baina ez du eragin handirik izango ekonomikoki.

Neurri egokiak hartzeko datu objetiboak erabili behar dira. Zutabe honetan esaten nuen ikerkuntzan inbertitzen duten lurraldeak aurreratuenak direla. Gaurkoan beste datu bat: EHUn inbertitzen den euro bakoitza gizartera bueltatzen da bi euro bilakatuta. Ez da aburu bat, baizik eta kanpo-txosten baten ondorioa. Jabetuta egongo al dira agintariak?



BIHARKO BEHARRETARAKO

Batxilergoak eta Zikloak

Ezagutu nahi gaituzu?

Deitu eta zita bat eskatu!

informazio gehiago

www.maristak.com • 94 681 00 58

Abasolo 6, Durango 48200 Bizkaia

san-jose@maristak.com

Aurtumatrikulak
Zikloak
Maiatzak 28 - Ekainak 8
Cielos
Del 28 de Mayo al 8
de Junio

